



Txirri, Mirri eta Txiribitonek 40 urte

«Arrakastaren kontzeptuaren kontra dabilena da pailazoa»

Mari Carmen Jaizme-Vega

«Transgenikoen ikerketak egiten dituzten bakarrak, ekoizleak eurak dira»

Igela aldizkaria

Literatura heterodoxoaren aitzindaria

Medikuntza fakultatea

Osasungintzan profesional erdaldunak gailenduko dira

Net Hurbil

Fukushimakoa gertatu eta urtebetera, minbizia ate-joka dute Futabako herritarrek

EH Bai

Jean-François Lefort (Batasuna) eta
Peio Etxeberri-Aintzart (Abertzaleen Batasuna)

«Hollande etortzen bada mobilizazioak izango dira»



**Aste
honetan...**



Beranduegi.tv



► **Beranduegi datorren albistegia**

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



► **Mister Toilet**

Kaka ongi kudeatzen baduzu ongarri izan daiteke baina ez baduzu ongi kudeatzen, hil egin zaitzake. Toilet Jauna "pertsona bat komun bat" leloa mundu osoan egia bihurtu dadin ari da lanean. Izan ere, munduko biztanleen %40k ez baitu oraindik komunik.



► **Mikel Arana**

Ordizia, 1973. Ezker Anitza-IUko koordinatzailea da. Legebiltzarkidea Gasteizen. Ezker Anitza Espainiako Estatuko Izquierda Unidarekin (IU) konfederatuta dago. Ezker Batua eta Ezker Anitza bi aukera dira honezkero. Ezkerra, anitza ez ezik, zatituta dagoenaren erakusgarri



3. saria: Tolosako Kartingean bueltaxka 2 lagunentzat + ARGIAko egutegia + ARGIAren 3 hileko harpidetza, doan.

2. saria: Txondorra erretegiaren otordua 4 lagunentzat + ARGIAren egutegia + 3 hileko harpidetza.

1. saria: Gametxo Hotelean asteburupasa 2 lagunentzat + Ilimani liburua + ARGIAren egutegia + ARGIAren 6 hileko harpidetza. Dena doan.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko martxoaren 18a, 2.315. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Juanito Oiarzabal:** «Konbentzituta nago Himalaian hilko naizela». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Cadizeko 1812ko konstituzioa.** Onartu al zen Euskal Herrian? JOSEBA AGIRREAZKUENAGA / 5

Pertsonaia

- **Txirri, Mirri eta Txiribiton:** «Pentsatu ere ez 40 urtean pailazoarena eginez ibiliko ginenik». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **Mari Carmen Jaizme-Vega:** «Ez dago informazio nahikorik transgenikoen kalteez eta epe luzeko ondorioez». UNAI BREA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Sortzaile handiak. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- Arrontegiko zubia. AITOR ZABALETA / 21
- **Hiruko txikian** Berdintasunean. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- The End. EDORTA ARANA / 22
- **Txandan** Txin txin... JUANRA MAKUSO / 22
- **Zirtak** Sei aipu autore bila. ANGEL ERRO / 23
- **Bertso berriak** Mila kilo zorion. MIREN AMURIZA / 24

Erdiko kaiera

- **Igela.** 50 urte dira aldizkari heterodoxoaren argitzetik. MIEL A. ELUSTONDO / 25
- **Liburuak** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** UNAI BREA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Euskal Herria Bai.** Euskal instituzioa eta bake prozesua batera eraikitzen. MIKEL ASURMENDI / 39
- **Medikuntza Fakultatea.** Euskaraz %33, gaztelaniaz %67. SAIOA LABAKA / 43
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Futabako alkatea: "Jendeak sakrifikatu zaizkie nuklearrei". PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Kritika eta autokritika. JOXE IRIARTE, 'BIKILA' / 50



“Konbentzituta nago Himalaian hilko naizela”

Juanito Oiarzabal

Donostia bezalakoa: bakarra munduan.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Alex Larretxi

Zure aurpegia ezaguna egiten zait.

Ez esan igo ditudan 8.000koengatik eta ETBn egiten ditudan programa txatxuengatik dela. Noiz onartuko didazue ordura arte izandako kirol ibilbide aberatsa?

Aizu, hemen 8.000ko bat igotzen ez duena ez da ezer.

Noiz ohartuko zarete azken urteetan Iñurategik, Vallejok eta Zabaltzak egin dituzten zeharkaldiek edozein 8.000ko igotzeak baino balore handiagoa dutela? Sormena, arriskua, konpromisoa eta jarrera hartu behar dira kontuan, ez gailurraren garaiera.

Zu zertan ari zara ba 8.000koen bilduma egiten?

Bi aldiz hamalau 8.000koak igotzen lehena izateari garrantzi pertsonala ematen diot, baina onartzen dut: uneotan ez diot ekarpenik egiten euskal alpinismoari.

Bi aldiz hamalau 8.000koak... Baina katuak baino bizitza gehiagorekin!

Katuak zazpi bizitza bakarrik ditu, ni hamalagarrenean noa. Nire bizitza mendian hiltzera determinatuta dago. Konbentzituta nago Himalaian hilko naizela.

Horregatik sartu zaigu Anbotora baino lehena-go Everestera abiatzeko mania?

Everestek bere nortasun eta protagonismo guztia galdu du. Dena komertzializatu da, bide guztiak ekipatuta daude, arrasto guztiak zabalik, oxigenoa non-nahi... San Prudentzio eguneko erromerian baino jende gehiago dabil!

Dena komertzializatuko zen, dena modernizatu, baina gero amonaxo batek ematen ditu gailurrak ontzat!

Hawley anderea oso pertsona jakintsu eta jantzia iruditzen zait, egia eta gezurra bereizten abila, hamaika entzun eta ikusitakoa, baina noiz sortuko da nazioarteko erakunde bat gure jardura arautu eta bideratzeko?

Telebista programa oso bat inoren amarekin akordatu gabe pasatzen duzunean, agian?

Batzuek larrutzen naute, besteek goretsi, baina nik ondo pasatzeaz gain patrika betetzen dut, eta horri esker mendian ibiltzeko denbora daukat. Noiz ulertuko duzue nire bizitza puta guztia daramadala mendian eta ez naizela sekula aberastu?

Segi mendira, orduan!

Jakina! Hamalau 8.000koen erronda bukatzen badut, oraindik bizi naizela esan nahiko du. Bestela, ez galdu denborarik nire bila... ■



Cadizeko 1812ko konstituzioa

Onartu al zen Euskal Herrian?

1812ko Cadizeko konstituzioak nazio bakarra aldarrikatzen zuen espainiar erresumako lurralde guztientzako. Euskal Herri osoa frantziar inperioren zati zen bitartean, penintsulako beste puntan erabakitzen ari zenak berebiziko garrantzia zuen euskaldunontzat, eta bi jarrera nabarmendu ziren gurean: konstituzioarekin baldintzarik gabe bat egiten zutenak eta euskal lurraldeen izaera foralarekin uztartu nahi zutenak. Izan ere, euskal foruak antzinako askatasunaren inspiraziotzat zituen konstituzioak.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA



Cadizeko konstituzioaren aldarrikapena. Salvador Viniegraren olio-pintura erabili izan da bigarren mendeurrenerako.

GARAI ZAILAK duela 200 urtekoak. 1807tik 1814ra bitartean, eta XIX. mendean barrena, euskal belaunaldi guztiek gerra giro zuzena ezagutu zuten. Eta giro horretan iraultza liberala ernetzen joan zen. Zer ote zen 1808ko gerra, galdetzen dugu, espainolen eta frantsesen aurkakoa? Herritar matxi-

natuak jauntxoen aurka? Erlijioaren eta erregearenganako leialtasuna nazio ikuspegia baino eraginkorragoa ote zen? Espainian mitologia berri baten hasiera dugu. Gurean, gerra horren zergatiak ulertzeko, euskal hiztunen adierazpenak eta ikuspegiak ere ezaugu beharra dago.



Pedro Jose Astarloak honakoa esan zuen 1818an, gerraren zergatiaz: *Gordetearren zintzoro / jaunaren fedea / geure lege garbiak / geure euskerea*. Bilboko San Fraisku edo San Frantziskoko komentuko buru zen Pedro Jose Astarloa. Euskal idazlea, sermoilaria, euskaltzalea eta euskaldunen historia gerraren esperientzian oinarriturik idatzi zuena 1818an. “Mendi mutil” gerrillari bat jarri zuen buruzagi militarren eredu: Frantzisko Tomas Antxia, *Longa* izenez ezaguna. Napoleonen kontra borrokan jardun ondoren Fernando VII.a espainiarraren alde aritu zen *Longa*, eta militar goren bihurtu zen. Pedro Jose Astarloaren kontakizuna Biblian oinarriturik zegoen. Eta nola diren gauzak, gaur egunera etorrita Rick Santorum Amerikako Estatu Batuetako hautagai errepublikarrak Ohion salatu du Obamaren programa ez dagoela Biblian oinarriturik.

Frantsesek liberalismoaren eta mundu berriaren aurrerapenak ezarri nahi izan zituzten ezpaten eta fusilen bidez. Bilbon 1808ko abuztuan Napoleonen eta frantsesen aurka altxatu zirenean, Merlin jeneralak matxinatuak zapaldu eta San Fraiskun hainbat fraide frantziskotar fusilatu zituen. Frantziskotarrek baztertuen eta pobreen alde ziharduten erlijioaren bidez, bada, Napoleonen eta liberalismoaren aurkari sutsu bihurtu ziren hortik aurrera.

Joan Antonio Zamakola euskaltzalea Napoleonen aldeko polizia-buru izan zen Madrilén. Musika “jatorraren” aldekoa, gitarraista bikaina, herri musika espainiarraren ikerle eta bultzatzailea, 1818an “euskal nazioen” historia argitaratu zuen Frantziako Auch hirian atzerriraturik zela. Gaztelaniaz argitaratu zuen, baina euskal izatea, euskararen defentsa eta euskal kontakizun historikoa berrasmatu zituen liburu horrekin. Horra bi eredu bateragarri eta aldi berean kontrajarri: bai Astarloak bai Zamakolak, euskal jendearen kontakizuna egin zuten.

Espainiako Erresuman frantsesen agintaritza onartzen ez zutenek, Napoleonen aurka-

Ezker-eskuin eta goitik behera, Cadizeko konstituzioaren eztabaidan parte hartu zuten protagonistetako batzuk: Agustín Argüelles, Gabriel Mendizabal, Migel Antonio Zumalakarregi, Frantzisko Xabier Castaños, Torenoko kondea, Charles Lefebvre, eta Frantzisko Egia.

riek, Junta edo Batza antolatzen zuten 1810ean, eta honek Gorteak deitu zituen, agintaritza antolatzeko eta konstituzio politiko berria osatzeko. Lehenago, 1805ean, Espainiako Erresumako legedi osoa bildu eta argitaratu zen; ohiko gorputz politiko eta

juridikoaren bilduma zen, lege zaharra alegia, gizarteko talde pribilegiatuen eskubideak babesten zituena. Hortaz, lege zaharraren aurrean, lege berria ageri zen. 1808an Espainiarentzako konstituzioa jarri zen indarrean Baionan Napoleonen aginduz. 1812an berriz, Cadizen konstituzio politikoa onartu zuten, hau ere sustrai berrietan oinarriturik.

Konstituzioa, “foruen perfektzioa”

Ipar Ameriketako independentzia prozesua 1776ean hasi zen, eta 1787an konstituzio federala idatzi zuten. 1789an, Frantziako iraultzaren ilduan, beste bat idatzi zuten eta gizakien eskubideen manifestua aldarrikatu zen. Horretan datza berritasun nagusia: gizaki guztiek eskubideak dituztela azpimarratzean. Ordura arte, zaldunak eta aitoren semeak baino ez ziren eskubidedunak, hau da, pribilegiatuak. Erresuma Batuan eskubideen aldeko joera jadanik XVII. mendekoa zen, eta Euskal Herriko foruetan XVI. mendean ere eskubide horien aldeko nolabaiteko aldarria ageri da. Baina Erresuma Batuan ez zegoen —eta ez dago oraindik— konstituzio politikorik idatzita. Parlamentuaren soberania eta erabakia da erakunde nagusia. Unean uneko malgutasuna erakusten du horrek.

Espainiako erresumako Ameriketako lurraldeetan europarrek, hots, “penintsularrek” erakunde agintea bereganatuta zuten. Eta euskaldunak edo euskal jatorrikoak zirenek agintari izateko pribilegioa bermaturik zuten kasik. Askotan, estatus horretara heltzeko, euskaldunak elkarren artean ezkontzen ziren. 1808an agintean zeuden euskal ordezkariak foruak errespetatzea eskatu zioten Napoleoni.

Ordainetan, euskaldunek Amerikan zuten sarearen bidez, lurralde haien leialtasuna izango zuen frantziar buruzagiak. Beraz, euskal hariak Euskal Herritik at ere garrantzitsuak ziren. Euskaldunen portaeraz mintzatzerakoan gogoan eduki behar ditugu sare horiek: Ameriketako alde batetik, eta Madrilgo Gorteetako bestetik. Ahaideenganako leialtasuna garrantzitsua zen berdin Enkarterrietako Galdamesen izan, Madrilen Gorteetan, zein Mexikon. Horra adibidez Yandiolatarrak.

Testuinguru horretan, Cadizen bildu zirenak “patriotak” ziren baina bi joeratakoak: batzuek, lege zaharretik atera gabe erreformak egin nahi zituzten; besteak aldiz, erabateko berrikuntza liberalaren eta konstituzio berriaren aldekoak ziren. Azkeneko horiek aginte garbirik eza aprobetxatu nahi zuten euren helburua lortzeko, legezko erregerik ez baitzegoen momentu horretan.

Baina konstituzio berriaren aldekoek ezin zuten inolaz ere esan Frantziako konstituzioaren antzeko zerbait nahi zutenik. Orduan, kontakizun mitiko berria asmatu zuten eta horretarako euskal foruak laudatu zituzten Cadizeko konstituzio berriaren hitzaurrean. Kontakizun horren arabera, jatorrian Gaztelako eta Espainiako tradizioan herri askeak izan ziren, baina Erregeak bereganatu egin zituen. Toki batean baino ez zuen iraun askatasun horrek absolutismoaren kontra: euskal herrialdeetan. Agustín Argüellesek, Cadizeko konstituzioaren egile nagusietako batek, euskal foruak goratu zituen, eta konstituzioaren hitzaurrean garai bateko monumentu gisa aipatzen dira lege zaharrok, askatasunaren monumentu. Konstituzio berria perfekzioa zen, foruen perfekzioa. Horregatik ezabatu behar ziren askatasun zaharrak, monumentu bihurtu eta konstituzio berria besarkatu. Foruen agintearekin amaitu eta konstituzioarena indarrean jarri behar zen.

Cadizeko konstituzio berrian, gizakien eskubideak, norbanakoen askatasunak, prentsa askatasuna eta botereen arteko banaketa jaso-

Gasteizen
erregezaleek 1812
inguruan
zabaldutako irudi
honetan Cadizeko
konstituzioa
munstro baten
itxuran ageri da.



zuten ziren; eta Gobernuaren oinarria Batzarraren zegoen. Bestetik, nazioaren mistikaren hasiera dugu. Nazio espainiarra, penintsulako, Ameriketako eta Filipinetako lurraldeetako biztanleek osatzen zuten eta soberania nazioan zegoen, ez erregean, ezta Jainkoan ere, konstituzioak erlijio katolikoa nagusitzat aldarrikatzen zuen arren. Arrazismoa ere ageri da Cadizeko konstituzioan, Bartolome Clavero historialari espainiarrak salatu izan duen bezala, afroamerikarren kontra. Bestalde, indigenak bazterturik zeuden, konstituzio berriak kreolen agintaritzaren bermatzen baitzuen.

Cadizen erabakitako konstituzioaren arabera nazio politiko berriaren agintea eta administrazioa toki guztietan berdina izango zen. Parlamentu bakarra, soberania bakarraren adierazle. Baina aginteen arteko oreka eta antolaketa administratiboa osatzerakoan eztabaida sortu zen. Bi joera kontrajarri nabarmendu ziren: Florencio Castillo Erdialdeko Ameriketako ordezkariak federalismoaren alde egin zuen, eta askatasuna bermatzeko, tokian tokiko aginte autonomoa defendatzen zuen. Jose

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Nor nahi zoazela. Nor nahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkora duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



1813ko Donostiako borrokaldia. Ingelesak gogor eraso zuten frantsesen esku zegoen hiria. Napoleonen tropek Irungo San Martzialen atzera egin ostean absolutismoaren aroa bueltatu zen.

María Queipo de Llano Torenoko kondeak, aldiz, hauxe erantzun zion: “Nazio bat eta bakarra baino ez dugu osatu nahi”. Torenoko kondearen ikuspegi hori irabazle atera zen eta liberal espainiarren baitan nazioaren ikuspegi uniforme bihurtu zen nagusi. Hala ere, legez horrela izan arren, errealtatean tokian tokiko aginteak indartsu iraun zuen lurralde eta udalerrietan.

Euskal Herriko ordezkariak Cadizen

Cadizen Euskal Herriak izan zuen ordezkaritza badaezpadakoa izan zen. Euskal Herria Frantziako Inperioaren zati zen garai horietan, militar frantsesen bidez gobernatua. Cadizen erre-fuxiaturik zeuden euskaldunek edo bertan bizi ziren euskal jatorriko herritarrek bilera egin eta ordezkari bana aukeratu zuten. Gipuzkoarrak ziren ugarien bilera hartan, Soraluze-ko eta Eibarko 70 armagile inguru bildu baitziren bertan. Hautatuak hauek izan ziren: Manuel Arostegi Madrilgo Gorteetako burokrata Arabatik; Frantzisko Egi Letona militarra Bizkaitik; Migel Antonio Zumalakarregi legelaria eta epailea –gerora karlisten buruzagi izango zen Tomas anaia bezala, frantsesen aurkako borrokalari– Gipuzkoatik; eta Frantzisko de Paula Escudero militarra Nafarroatik. Beraz militar bi eta bi burokrata. Frantzisko Egi absolutista zen, besteak liberal joerakoak. Hala ere, Egiak zin egin zuen konstituzioa. Ordezkari horiek izendatzeko lehia estua jazo zen tradizionalista eta liberalen artean, bereziki Araban eta Gipuzkoan.

Cadizen, Baionan bezalaxe, erakundeen izaera forala izan zen eztabaidagai. Ildo tradizionalistakoek foruen jarraipena proposatu zuten, Frantzisko Egiak adibidez. Hortik gutxira Egi kontrairaultza liberalaren buruzagi militar bihurtu zen eta Fernando VII.a Espainiako errege absolutista bihurtzeko pertsona giltza-

ria izan zen. Zumalakarregirentzat aldiz, konstituzioak foruetan jasotzen ziren eskubideak garbiago babesten zituen, eta beraz, hobe zen legedi zaharra alde batera uztea.

Batzar Nagusiek onartu al zuten Cadizeko konstituzio berria?

Frantziar soldaduak oraindik Durangaldean egon arren, hainbat gerrillari talderen buru zen Gabriel Mendizabal jeneral bergararra Bilbon sartu zenean, Bizkaiko Batzar Nagusiak deitu zituen, eta ehun ordezkari inguru bildu ziren Bilboko San Nikolas elizan 1812ko urriaren 12an. Oraindik ez zen konstituzio berririk indarrean jarri. Mendizabalek Erresuma Batua-ren laguntza izan zuen frantziarren kontrako borrokan, eta esker onean britainiar armadako ingeniari taldeko kapitain buru Charles Lefebvre gonbidatu zuen Batzar Nagusi horietara. Hara zer idatzi zuen britainiarrak ikusitakoaz: “Parlamentu moduko bat zen, herriko maila sozial guztietako 130 bat lagunek osatua”. Erresuma Batuko Westminsterreko Parlamentuaren esperientzia hezi zen militar baten deskribapena dugu, eta besteak beste, proposamenak euskaraz eta gaztelaniaz egiten zirela argitzen du Lefebvrek.


Cadizen erabakitako konstituzioa irakurri ondoren, Batzar Nagusietan bi proposamen aurkeztu ziren. Ildefonso Santxorenak egin zuen lehen proposamena, bost ordezkari izenean. Beste barik konstituzio berria zin egin behar zela eskatzen zuen: “Inolako zuhurtzia eta murrizketarik gabe”. Bizkaiko foruek jasotzen zituzten eskubideak, pertsona indibidu-

len eskubideak alegia, konstituzioan ohiko foruetan baino hobeto bermatzen zirenez gero, konstituzio berriak ohikoaren perfekzioarako bidea zabaltzen zuela aldarrikatzen zuen. Bigarren proposamenak konstituzioa onartu bai, baina Bizkaiko foruen edo “konstituzioaren” alde ere egiten zuen. Biak nahi zituzten,

eta uztartzeko aukerarik ote zegoen ezagutu nahi zuten proposamen honen aldekoek: “Konstituzio espainiarra jasotzean bizkaitarrari uko egitea beharrezkoa ote den ez daki batzar honek, ez daki bien abantailak osotasunean edo zati batean bateragarriak ote diren”. Proposamen honetan “*nación española*” aipatzen da, baina aldi berean “*pueblo vizcayno*” ere bai.

Bozketa egin zen, eta erabateko nagusitasunez, Bizkaiko eta Espainiako konstituzioen arteko uztartze eta bizikidetzaren aldeko proposamena onartu zen. Baina konstituzio bien arteko egokitzapenerako azterketa lortu arte, Bizkaikoak jarraitzen zuen indarrean; beraz, obeditu bai baina ez erabat bete. Bizkaitik Cadizerantz bi batzorde abiatu ziren: gutxien-

Migel Antonio Zumalakarregirentzat, foruetan jasotzen ziren eskubideak garbiago babesten zituen konstituzioak



Cadizeko 1812ko konstituzioaren hitzaurrean euskal foruak nabarmen ziren. Herritarren jatorriko askatasunaren azterna gisa jo zituzten foruak, eta konstituzioa horien "perfekzioa" zen.

goarena eta gehiengoarena. Azken horretako buru ziren Migel Antonio Antuñano apaiza, Bizkaiko foru-batzordeko kidea, eta Santiago Untzeta, 1808an diputatu nagusi izana. Mariano Renovalesek aldiz, Euskal Probintzietarako komandante nagusia zenak, Bizkaia salatu zuen, eta errepublika independente balitz beza-l jokatzeko zuela esan zuen.

Azkenean, Espainiako erregeordetzak ez zuen onartu Bizkaiko Batzar Nagusietan erabakitakoa, areago, Frantzisko Xabier Castaños buruzagi militarra Bizkaia bidaltzea agindu zuen, inolako salbuespenik gabe konstituzioa bere horretan zintz egin zezaten: "Desordena horiek zapaldu eta konstituzioa zinarazi eta publikatu dezala inolako atzerapenik, murrizketarik eta aldaketarik gabe, bere horretan soil-soilik". Eta horrela, badaezpada, konstituzio berria herriz herri zintz egitera behartu, eta 1813ko irailean aduanak kostaldera aldatzea erabaki zen.

Arabako Batzar Nagusiek Cadizeko konstituzioa onartu zuten Artziniegan 1812ko azaroan. Baina 1814ko ekainean, absolutismoaren itzulerarekin, Batzar Nagusi horiek bere konstituzioaren testuak erretzea agindu zuten, eta Nikasio Jose Velasco liberalismoaren aurkari porrokatua bihurtu zen Diputazioako agintari.

Gipuzkoako Diputazioak Zumalakarregiri galdetu zionean foruak berreskuratzeaz zer iritzi zuen, honek erantzun zuen ez zela unerik egokiena horretan jarduteko. Zumalakarregik ikuspegi liberala zuela eta nazio berria ez zuela bereizketarik nahi. Geroago, frantsesak erretiratu ondoren, Batzar Nagusietarako deia egin zuten Deban 1813ko uztailan, eta Frantzisko Xabier Castaños kapitain jenerala bertan zela, konstituzioa irakurtzeki ekin zitzaion.

Batzar Nagusiek Cadizeko konstituzio politikoa berria onartu eta zintz egin zuten, baina aldi berean eskatu zuten negoziatio baten bidez Diputazioak erakunde izaera berezia lor zezala. Hori zela-eta zalantzak sortu ziren, eta Aiako

alkateak Aldundiari galdetu zion konstituzioa zintz egin behar ote zuen eta nola. Cadizeko erregeordetzak gogor jokatu zuen berriz ere, Bizkaian bezalaxe —"ez da argi eta beharrezko zehaztasunez geratzen Monarkiaren konstituzioari zintz egin izana"—, eta berehala konstituzioaren baitako Diputazio probintziala indarrean jarri behar zela agindu zuen. Hala ere, 1813ko irailaren 22an Diputazio foralaren azkeneko bilera egin zenean, Agustín Pascual Iturriaga apaiz liberal euskaltzalea kide zela, bi konstituzioen —Gipuzkoakoa eta Cadizekoa— arteko egokitzapena aldarrikatu zuten isileko akta batean.

Hortik gutxira, 1813ko amaieran, nafar erakundeek konstituzio berriari onetsi zuten. Nafarroako ahaldu nagusi izandako Migel Escudero izendatu zuen erregeordetzak Nafarroako buru 1813ko uztailaren 23an, eta konstituzioari zintz egiteko eskatu zion. Horrela egin zuten azaroaren 13an. Dena den, Escudero Nafarroako Gorteak deitzeko baimena eskatu zuen, Nafarroako legediaren arabera haiek zirelako ebatzi behar luketenak. Baina erregeordetzak debekatu egin zuen Gorteen bilkura. Agian Bizkaiko adibidearen beldur zen.

Beraz, Bizkaian eta Gipuzkoan beren konstituzioaren —foruen— eta Espainiakoaren arteko elkarkidetasuna sortzeko negoziatioa eskatu zuten. Baina ez zen horrelakorik sortu Cadizeko erregeordetzak ez zuelako onartu. 1814an Fernando VII.a itzuli zenean, ez zuen konstituzio berriari nahi izan. Agintea beretzat osorik hartu ondoren, ohiko legediari jarraiki, indarrean ezarri zituen Batzar Nagusiak eta euskal erakundeak. Inkisizioa ere berriz indarrean zen eta eskubide indibidualak absolutismoaren garai berriaren hutsaren hurrengo bihurtu ziren. Aldiz, Ameriketako lurraldeetako buruzagi kreoleak beren kabuz gobernuak antolatzeko hasi ziren, independentziaren bidean. ■



Txirri, Mirri eta Txiribiton

«Pentsatu ere ez 40 urtean pailazoarena eginez ibiliko ginenik»

Pailazoa. Definizioa. Gainontzeko kideentzat umore iturri agorrezina. Definizioak errealitate harrapagaitza harrapatu nahiko luke. Ezin 40 urteko jarduna definizioan bildu.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

1972an hasi zineten pailazokerian.

Ez dugu zertan kexatu. Asmatu genuen, hasi-ta. Mugimendu handiko garaia zen. Ez Dok Amairuren sasoirik onena, Txotxongilo taldea, antzerkia, zinemagintza... Euskara batuaren auzia gori-gori... Gainera, gerra galdutako jendea, guztiz txikituta zegoena, eta, bestalde, gazteak, aurreko belaunaldiarekin hautsi zutenak. Horretan nahiko esker txarreko izan ginen, gure kulturaren izen handiak ziren, baina baztertuta geratu ziren. Nemesio Etxaniz bat eta! Guk harekin izan genuen harremana. Amaiera tristea izan zuten. Manuel Lekuona eta! Pena, hainbeste merezimendu egindako jendea horrela baztertzea. Gaur egundik ari gara, jakina. Orduan bestela ikusten ziren gauzak.

Kresala Elkartea.

Kresalako bazkide ginen, eta gara. Eta, neurri batean, sortzaile ere bai, elkartearen lehengo bazkideetakoak gara-eta. Euskal kultura irakiten zegoen, eta Kresala tartean zen, bertan egosten zen hainbat ideia, eta ekinaldi. Kresala ez balitz, beharbada gu ere ez ginen sortuko. Batek jakin. Kresalak biltzen gintuen lanera: Haerrikada izeneko kultur asteak eta. Axularren esaldi hartatik hartu genuen izena: "Dabilen harriari ez zaika goroldiorik lotzen". Kultur asteak, hama-bostaldi eta hiru asteakoak izan ohi ziren. Sekulako gorabeherak izaten genituen. [Lluis Maria] Xirinachs apaiz famatua ere ekarri genuen. Poliziarekin, berriz, beti isti-

luak. Elkartea ez zen politikoa, berez, baina egurra galanki ematen ziguten. Gu gazte ginen, kezka genuen, konpromisoa... Baina independente ginen, alderdi politikoez loturarik ez genuen. Ez ginen politikoak, baina apolitikoak ere ez!

Pako Etxebeste.

Apaiz egiteko zorian zegoen. Kresalako bazkide zen hura ere, eta saltsero hutsa. Eta lagun-lagun. Kresalaren baitan, haurrentzako ekitaldiren bat nahi genuen egin, ez baitzegoen halakorik, ez euskaraz, ez gaztelaniaz. Zer egingo, eta pailazoak asmatzea bururatu zitzaigun. Pako Etxebeste seminarioan pailazoarena eginda zegoen, nonbait, eta laguntza eskatu genion. Eta gidoiak ekarri zizkigun, janzteko batzuk ere utzi zizkigun... Artista hutsa zen Pako, izugarria. Gure artean inor gaixotzen zenean, hari deitu besterik ez genuen. Zoragarri egiten zuen pailazoarena. Kixki, Mixki eta Kaxkamelon ginen sasoi hartan, eta Pakok batarena zein bestearena egingo zuen, zailtasunik gabe.

Gidoiak.

Bagenituen esketx batzuk, Pako Etxebestek emanak. Beste batzuk, Tito y Canutorenak; Txema Zubia eta Jaime Zurbano ziren. Gaztelaniaz zeudenez, guk euskaratu eta gure erara egokitu genituen. Eta oraindik, haietakoren bat edo beste egiten dugu. Esketx klasikoak ditugu. Guretik ere egiten genuen, jakina: txisteak eta abar. Eta, hala ere, %50



Nortasun agiria

Sagarra mantzana / ikatza carbon / mujer andria / ta hombre gizon. / Xanti, xanti, xanti, / txibiri-txibiritero, / xanti, xanti, xanti, / txibiri-txibiriton, / Kixki ta Mixki ta / Kaxkamelon. Edo Txirri (Xabier Otaegi), Mirri (Jose Ignazio Ansorena) eta Txiribiton (Txema Vitoria). 40 urtez irri eginarazle zazpi euskal herrietan. Jolasean hasi ziren, bizi osoko ibilbidea egin dute euskaraz eta barrez. *Don don kikirikon, Funtzioa, Barrebusa, Altxaporru, Trikitraka Trikitron, Sagarra da apple...* Ehunka kantu gure belarrietan, Euskal Herriaren historiaren atal bat hiru pailazoen ibili ederrean.

inprobisatua zen. Horregatik izan zen mutu Kaxkamelon, horregatik da mutu Txiribiton: hiru lagun inprobisatzen jardutea baino errazagoa da bik inprobisatzea.

Herri batetik bestera hasi zineten.

Kresalaren kultur aste hura martxoan izan ohi zen. Hartan, haurrentzako ekitaldiaz arduratu ginen gu. Eta pailazoak egin genituen, antzerki emanaldi laburren bat, txokolate-jana... Haurrentzako jai osoa. Jende asko bildu zen haurrentzako festa hartara.

Lehenbiziko saio hura ikusi zutenen artean, Aieteko ikastolako senar-emazte batzuk ziren. Kresalan egindako saio bera Aieteko ikastolan egiteko eskatu ziguten. Gu prest. Txokolate-jana eratu ez beste guztia egingo genuela esan genien. Hurrena, Joxemiel Barandiaranen omenaldian egin genuen saioa, Ataunen. Pako Etxebeste etorri zitzaigun, han saioa egiteko geure buruak eskaintzeko esanez. Barandiaran berak ere bazuen pailazo abildadea. Gasteizko apaiztegian zirela, igande arratsaldeetan, film mutuak jarri eta berak jartzen omen zien ahotsa, efektuak egiten zituen... Izugarri ona omen zen, jendeak algarak egiten omen zituen. Jende mordo bildu zen Ataunen, zazpi euskal herrietakoak. Tarteetan, Ondarroatik joandakoak. Ea urte hartan bertan herriko jaietan saioa egin genezakeen. Guk, baietz. Eta joan ginen. Antzerki emanaldia eta pailazoen saioa, biak egin genituen. Hantxe ezagutu genituen Manolo eta Enkarni Genua, txo-txongiloan. Saio betea izan zen. Ordu arte, euskal jai eta antzekoetan haurrentzako egunak antolatzen ziren, baina haietan dena zen “haur txistulariak”, “haur dantzariak”... Haurrek egindako emanaldiak ziren, guraso-entzakoak, eta ez, aldiz, haurrek gozatzekoak. Ondarroan egin ondoren, Xabier Gereñok kasu egin zigun, Santiago Apostol

Progresioa

“Gogoan dugu, lehenengo emanaldiak ordubete inguru iraungo zuen. Haren ondokoek, gidoi bera izanagatik ere, ordu eta erdi. Ireki egiten genuen gidoia, harrotu egiten zen saioa, bizkotxoa labeaz bezala. Bestalde, hor zen musika, hor ziren kantuak, eta garrantzi handia eman diogu horri. Ahalik eta lanik onena egiten saiatu gara. Horra Kixki, Mixki eta Kaxkamelonen lehen disko hura. Maitasun handia diogu. Hantxe diren *Pinto, Pinto, Paristik natorren* eta beste mordoxka zabaltzen lagundu genuen. Progresio bat izan da: kasik ustekabeaz ekindako bide bati jarraipen eman diogu, honaino iritsi arte”.

antzeko saioa egiteko. Kantariak, dantzariak eta gu. Hantxe egin ziguten, lehenbizikoz, afixa, euskaraz eta gaztelaniaz: “Lehenengo aldiz Bilbon, pailazoak euskaraz”, eta gure marrazkia, baten batek argazki batetik eginga. Horrela, batetik bestera hasi ginen eta, ez dakigu ez ote den ordukoa azal bat, gurea, *Zeruko* ARGIA aldizkarian. Hortik eza gutuko gintuen jende askok. Guk, geure artean, uste genuen baten batek gu ikusi eta haiek ere pailazoarena egiten hasiko zirela. Ez genuen geure burua pailazo ikusten. 1972tik 1985era, hirurehun bat emanaldi egin genituen han eta hemen. Hogeita hamar bat saio urtean. Ez zegoen antzerki talderik guk hainbeste saio egingo zuenik. Txotxongilo taldea, eta gu, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon, ginen.

Pailazo baimena atera behar izan zenuten.

Agustin Zapiain ‘Pello Kirten’-ek komeni zela esan zigun. Bera ere herri batetik bestera ibili ohi zen, eta baimena aterata zuen, sindikatu bertikalean. Gainera, baimena emateko epaimahaian zegoen, Los Pomposos fanfarrearen sortzaile ‘Gilito’, Migel Miralles. Poliziak kontroletan geratzen gintuen, emanaldiak kontrolatzera etortzen zitzaizkigun noiznahi. Carrero Blanco hil zutenean, saioa genuen Bergaran. Saioa egin eta bueltan, Deskarga gainean, guardia zibilen kontrola. Gerarazi gintuzten, trasteen kutxa irekiarazi, jostailuzko karabina bat ikusi... “Eta hau?”, “pailazo funtzioa egiteko gator”, “usteko duzu gaur pailazoarena egiteko eguna dugula? Azkeneko aldial”. Bizkaian, berriz, baimena eskatzen ziguten, eta gidoia. Horretan Xabier Gereñok lagundu gintuen: guk nola-halako gidoiak prestatu genituen, Xabierrek nola-halako itxura eman, gobernu zibilean euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu, eskaria egin, eta ontzat eman zioten, zigilua jota. Horrela, saioan zer egin behar genuen galdezka etortzen zitzaizkigunean handik edo hemendik, gidoi

haiek genituen, ontzat emanak, nahiz eta saioan zer egingo genuen batere ez jakin. Sindikatu bertikalaren txartela ere bagenuenez, uzaia eta geziak ageri, libre ginen poliziaren aurrean. Pasaporte eta bisatua genuen.

1983an, Txema Vitoria bildu zen taldera.

Azken boladan Kaxkamelonek saiora etorri ezin izan zuen batzuetan, Txemari deitzen genion, ordezkotza egin zezan. Eskolan ere, Donostiako Larramendi ikastetxean, lankide ziren Txema eta Piter. Zalantza handiak izan genituen, nola eduki Txema mutu! Garai hartan, *Don don kikilikon* saioa egiteko proposamena izan genuen ETBn, eta hasi ginen. Kaxkamelonen lana egiten zuenarekin gorabeherak genituen, eta Txemari eskaini genion. Baita onartu ere.

Funtzioa egiten hasi zinetenean, helduentzako saioa, umore klabea aldatu zenuten?

Umore klabea baino, gaia aldatzen da –egunerokotasunak indarra hartzen du–, eta pertsonaiak ere ezberdinak dira. Pailazo izatetik showman izatera aldatu ginen. Umorea egitea da beti, baina egunak ematen zuenari lotutakoa.

Nola egiten da umorea?

Ez da egiten, sortu egiten da. Charles Chaplini galdetu behar hori. Dena dela, gu behin ere ez gara oso teorikoak izan. Guk, jardun egin dugu, militante izan, egin... Bideak erakutsi digu. Astelehenero, mahai baten inguruan bildu eta ergelkeriak esaten hasten ginen, barre egiten, eta oharrak hartzen, pasadizo libertigarrienak biltzen. *Braim storming*-a zen. Telebistarekin batera hasi ginen Txirri, Mirri eta Txiribiton. Hasieran geu arduratzen ginen denaz: gidoiak, zuzendaritza... Baina ikusi genuen horrela ezin genuela jarraitu eta laguntza biltzen hasi ginen. Hala *Don don kikilikonen* bigarren urtetik aurrera, nola *Funtzioa* bertan, ez geunden bakarrik, asteroko saioa egiteko gidoilariak izan genituen. Zein

Kalamidade huts

“Zirkukoa da pailazo tradizionala. Han esketxa egiten du pailazoak, oso landua. Zortzi egunean, bizpahiru emanaldi egiten ditu, eta esketx berbera egingo du. Hitzak ere bakan ibiliko ditu, batean malabarismoa, bestean bestelakoa. Guk bestela egin dugu: gurea antzerkiari lotuago ageri da, euskarari estu lotua. Euskaraz hitz egin nahi genuen, euskaraz hitz eginarazi, espresibidea landu, esamoldeak aberastu... Era horretako pailazoak izan gara, ez ginelako gauza esketx bat bera perfektu egiteko. Alegia, kalamidade hutsak garelako!”.

eta zein, eta, lehenena, Andoni Egaña. Bada zer edo zer! Gero, Karlos Zabala eta Eneko Olasagasti. Horiek ere badira! Erredakzio lanetan laguntzeko norbait behar genuela, eta Jaime Otamendi aukeratu genuen, beste bat, ibilbide handia egin duena... Gazte-gazteak ziren, sasoi betean zeuden, eta guk haiei ezer erakutsi genien ez dakigu, baina haiek guri, asko! *Funtzioan*, musikan ere, jende ona: Jose Mari Oiartzabal, Jose Antonio Mercero, Karlos Giménez, Joserra Senperena, Mikel Artieda, Paco Díaz, Mixel Ducau.... Asko laguntzen du horrek.

Telebistak berak laguntzen du inor ezagun eginen. Garai hartako ETBn, batik bat.

Askoz ere fama handiagoa bildu genuen telebistan hasi eta ondoko bizpahiru hilabeteen, aurreko hamahiru urtean baino. *Funtzioaren* garai hartan, 200.000 lagunek ikusten gintuzten, batez beste. Egun, Euskal Herrian ez dago hainbeste lagun biltzen duen ohiko saiorik. Orduan lau ziren telebista kateak, orain ez bezala. Gainera, *prime time*-n zen *Funtzioa*, adibidez. Eta pailazoen programak larunbat arratsaldeetan.

Pailazo lana, batetik, eta zeuen lanbidea, bestetik, uztartu behar izan dituzue.

Ezinbestean. Txiribiton, adibidez, irakasle zen. Ikasketa arduraduna zen, gainera. Ikastetxean ematen zuen goiza, lanean buru-belarri, pailazo kontuak ahaztuta. Arratsaldean, pailazo zen buru-belarri, irakasle kontuak zeharo ahaztuta. Oso gimnasia ona zen buruarentzat. Pailazo lana eta lanbidea uztartzea, bestalde, gure jatorriari lotuta dago. Behin ere ez genuen pentsatu pailazo izatea. Ondoren, bai, etorri zen belaunaldi bat meritu handikoa, aktore izan nahi izan zutenak: Karlos Zabala, Eneko Olasagasti, Elena Irueta, Jose Ramon Soroiz, Aizpea Goenaga, Mikel Garmendia, Kontxu Odriozola... Horiek denek gure eskutik zapaldu zuten lehenbizikoz telebista platoa. Zaharrago ginen, lehenagotik gentozen, eta burutik pasa ere ez zitzaigun egin profesionalak izatea, erabat horri emanak bizitzea. Burutik pasa ere ez zitzaigun egin 40 urtean pailazoarena eginez ibiliko ginenik, pentsatu ere ez! “Egin dezagun!” esanda egin genuen lehen saioa Kresalan, eta bide horretatik aurrera egin dugu.

Nola egiten da emanaldi ona?

Badakigu nolakoa den haurra. Kontzentrazioari luze eustea kostatzen zaio. Haurra ezin da ordubetez lotuta eduki. Tarteka lehertzeko aukera eman behar zaio. Ondoren, baretzea dator. Gu ez gara didaktiko, ez



GALDE SHORTA

Badok hamahiru

Nor gogoratzten da Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailazoez? Jende asko, gure amak eta, batez ere, gu geu.

Nork ezagutzen ditu Jose Ignazio Ansorena, Xabier Otaegi eta Txema Vitoria? Etxekoek, emazteek, koadrilakoek.

Zer duzue pailazo izatea? Matxino izatea, arrakastaren kontzeptuaren kontra dabilena.

Non da pailazoaren tristura? Pailazoaren bihotzean. Osagarri beharrezkoa du hori pailazoak.

Non da euskararen tristura? Euskara erabiltzearen hasi ginen, euskara batuaren alde egin genuen, euskara esanguratsua, hika ere bai. Bide horretan jarraitu dugu.

Nahitaezkoa da gaztelania euskarazko pailazokarian? Ez, baliabide bat da, ez besterik. Gure erdarakadak ez dira dozena erdi baino gehiago.

Zertan aldatu dira haurrak joan deneko 40 urte honetan? Orduan belaunean urratua, mukiak zintzilik zituzten. Orain askoz ere moñoñoago dira.

Haurrak beti haur? Bai, baina orain lehen baino askoz lehenago uzten diote haur izateari. 13 urtekoak ere gure emanaldira biltzen ziren orduan.

Zertan aldatu zarete zuok, pailazook? Zahartu egin gara! Gaztetasuna falta zaigu, freskotasuna. Aldiz, esperientzia izugarria dugu.

Beldur eszenikoa. Aspaldi galdu genuen. Hasieran ere lotsagabe xamarrek ginen, eta orain berriz, bate-re beldurrik ez digu ematen agertokiak. Ofizioa.

Pailazoak, gure pailazoak. Pailazo asko dabil batean eta bestean, baina batzuk animatzaile baino ez dira.

Txiribitonek hitz egingo balu... Inguruko guztiak isilaraziko lituzke, ez luke etenik. Isilik hobeto dago.

40 urte! Iritsi gara! Kresalan hasi ginen, eta Kresalan bertan ospatuko dugu martxoaren 25ean. Ondoren, hiribururik hiriburu ibiliko gara.



dugu izan nahi, baina ekitaldi ona, berez da didaktikoa. Eta alderantziz, axalean didaktikoa izan arren, saioa izan liteke txarra. Publikoaren arreta geureganatzea izan da beti gure erronka. Gaur egun, talde asko ikusten ditugu sekulako bolumenean, haurrak ezker eta eskuin, gurasoak ere berrikeretan... Guk, isiltasuna behar izaten dugu, ebakitzeko moduko isiltasuna, haurren eta gure arteko enpatia... Haurra gure hatzaren puntaren puntari begira eduki nahi dugu. Publikoa algararik handienetik xamurtasun

Gozamen huts

"Bi une dira berezi. Bata, sarrerakoan, haurraren orroa jasotzen dugunean, eta orroan, txaloa. 'Txirri, Mirri eta Txiribiton!', aurkezpena egin, agertokian azaldu, eta haurraren txalo zaparrada eta miresmena zoragarria da. Bestea, berriz, isiltasun osoko unea. Antzerkia egiten dugu guk, oroz gain, eta antzokian jarduten dugu, non kontzentrazioa eta isiltasuna errazagoak diren, aretoen ezaugarriengatik. Baina kiroldegietan ere egin izan ditugu saioak, eszenatokia muntatuta. Eta han ere haurra isil-isilik ikustea, ahoa zabal-zabalik, begiak borobil-borobil... gozamen hutsa da".

sakonenera eramatea lortzen dugunean, "gaur bai, komunikazioa!", hor dago txaloa! Haurraren txaloa laburra da, ordea, eta txalo jo ondotik, gehiago nahi du, berriz txalo jotzeko. Horixe da arrakasta, haurraren txaloa. Urteak dira Gasteizen bi funtzio egin genituela, goiz eta arratsalde, Mendizorroztza pabilioian. 8.000 haur inguru bildu genituen denera. Eta denak isilik, i-si-lik! Horrek balio du.

Bukatu da, akabo. "¡A fastidiarse!"

Emanaldia genuen Gasteizen. Euskadi Irratiak antolatutako festa. Horretan, bi egun lehenago konturatu dira propagandarik egin ez dutela. Hasi dira, irratik emisore guztietan publizitate egiten, euskaraz eta gaztelaniaz. Emanaldi egunean, Mendizorroztza beterik, 3.000 lagun. Euskaraz hasi ginen, beti bezala. Eta han, barrabasen batek, agure bat, txapela buruan: "¡En castellano, que no entendemos!", hots egin zuen. Eta orduan Mirrik: "¡A fastidiarse!". Egundoko grazia eragin zuen, algara, eta handik atzera, Mirrik maiz darabil. ■






argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.

• Mari Carmen Jaizme-Vega •

«Ez dago informazio nahikorik transgenikoen kalteez eta epe luzeko ondorioez»

Biologoa, Kanarietako Nekazaritza Ikerkuntzaren Institutuko programa koordinatzailea da, baita Espainiako hainbat elkartetako kide ere: Fitopatologiakoa, Baratzegaintza Zientzietakoa eta Nekazaritza Ekologikokoa. Madrilen egindako transgenikoei buruzko nazioarteko jardunaldietan parte hartu zuen iazko azaroan, eta orduan esan zuenaren kariatara egin diogu elkarrietz hau.



MARI CARMEN JAIZME-VEGA UTZIA

UNAI BREA

Madrilgo jardunaldietan esan zenuen transgene fluxua dagoela landare autoktonoetara eta mikroorganismoetara. Zer da transgenea?


Hobeto ulertzeko, genea zer den azaldu behar da lehenik. ADN edo ARN –ondoretasunezko informazioa pilatzen duten molekulak– zati bat da genea; zati horren barruan funtzio bat betetzeko behar den informazioa dago; adibidez, proteina bat sortzeko. Gene bat bere genomatik bereizi eta beste organismo baten genoman txertatzen denean, transgene esaten zaio. Transgene horrek batzuetan alde egiten du, eta hasiera batean transgenikoak ez ziren landareetan aurkitzen da. Landare horiek transgeniko bihurtzen dira, kontrolatu gabeko fluxua dagoelako.

Nola egiten dute ihes transgeneek?

Zientifikoki egiaztatu ahal izan da batzuetan geneen transferentzia horizontala gertatzen dela naturan –polenaren bitartez, esaterako–, manipulaturako landareetatik ekosistemaren

mikroorganismoetara edo beste landare batzuetara. Erraz ulertzeko moduko adibide bat da Mexikoko arto aldaera indigenekin jazotakoa: AEBetatik iritsi diren aldaera transgenikoek kutsatu egin dituzte.

Batzuek diote hori ez dela berez arazoa, transgeneak, lekuz aldatu arren, ez direlako kaltegarriak. Hori ere frogatzeko dago. Ikerketa kopuru txikia eta, batzuetan, haien zabalkunde eza dela-eta, ez dago informazio nahikorik transgenikoen kalteez eta epe luzean duten ondorioez. Zientzialari askok sumatzen dugu hutsune hori: ikuspegi biak parez pare jartzea ahalbidetuko duen ikerketa egin behar da. Agian ez ginateke hain kezkatuta egongo askatasun handiagoz ikertu ahal izango bagenu, eta ikerketa-proiektuak egongo balira norabide bietan. Baina oro har jende gehiago ari da lanean transgenikoak nahikoa onuragarriak direla frogatzeko. Oso gutxi ari dira ondorio negatiboak frogatu nahian.



LOS PRODUCTOS NATURALES.COM



THE CROSSING WITCHITA.COM

“Mikrokosmos batean edo laborategian egindako esperimentuen emaitzak ezin dira zuzenean estrapolatu baldintza errealekara. Nola estrapolatuko duzu laborategiko datu bat ingurumenara, jakinik tenperatura, pHa, CO₂ kontzentrazioa... aldatuz gero emaitza guztiz desberdina izan daitekeela? Ez dago ebidentzia nahikorik, ezta errepikapen nahikorik, ezta ere baldintza meteorologiko unibertsalik, ezer ziurtatu ahal izateko ez transgenikoen alde ez kontra”.

Baina, ikerketa baten hasierako abiapuntua zerbait ona edo txarra dela frogatzea izatea, ez da zientzia desitxuratzeko?

Zientzia lerratuta dago, edonork egiten duela ere. Zuk hipotesi bat duzu abiapuntu, eta hipotesi horrek joera bat ematen dizu. Ez da berdina esperimentu bat antolatzea –esperimentua zuzena izan arren– transgenikoen onurak frogatzeko, edo haien kalteak frogatzeko. Zientzialariok pertsonak gara, eta gure pentsamenduaren arabera gauzak era batera edo bestera ikusten ditugu. Gainera, zenbaitetan, pentsamendu horiek indartzen dituzten arrazoi ekonomikoak egon daitezke.

Zuk esana da: “Metodologian aurrerapenak egin arren, emaitzak interpretatzeko mugak daude”.

Mikrokosmos batean edo laborategian egindako esperimentuen emaitzak interpretatzeko, esperimentu horren garapenean izandako baldintzak hartu behar dira kontuan. Ezin dira zuzenean estrapolatu baldintza errealekara. Landa-sistema bakoitzaren arabera egin behar da interpretazio hori, eta aldagai ekologiko guztiak integratu behar dira hor. Oso zaila da. Landan esperimentua hainbat ziklotan egin ezean eta faktore guztiak gutxi gora-behera kontrolatuta eduki ezean, nola estrapolatuko duzu laborategiko datu bat ingurumenara, jakinik tenperatura, pHa, CO₂

kontzentrazioa... aldatuz gero emaitza guztiz desberdina izan daitekeela? Ez dago ebidentzia nahikorik, ezta errepikapen nahikorik, ezta ere baldintza meteorologiko unibertsalik, ezer ziurtatu ahal izateko. Ez alde eta ez kontra.

“Transgenikoen aldeko esperimentu gehiago egiten dira, eta erraztasun gehiago dago esperimentu horiek egiteko, kontrako zentzuan baino”

Haatik, esango nuke gaiari buruzko literaturaren zati handienak zera dioela: transgenikoak ez direla kaltegarriak.

Produktu horiek merkatuan jarri dituenak beraiek sustatzeko ikerkuntza errazten du. Industriaren aurkako ikerketa librea egitea zailagoa da. Zentzu batean zein bestean, dena jar daiteke zalantzan. Niri ez zait *a priori* hobea iruditzen transgenikoez txarto hitz egiten duen esperimentu bat ongi hitz egiten duena baino. Nik, zientzialaria naizen heinean, ez dut zertan pentsatu errealitatea desitxuratzeko eginda daudela. Esan behar dudana da transgenikoen aldeko esperimentu gehiago egiten direla, eta erraztasun gehiago dagoela esperimentu horiek egiteko, kontrako zentzuan baino. Hazi transgenikoen eta produktu fitosanitarioen salmenta negozioa da. Negozio hori asmakizunaren baliagarritasuna berresten duten esperimentu zientifikoekin bermatuta badago... Pernandoren egia da.

Zientzialariak ez diren herritarrei irudituko zaie zientziak beti gauza bera esan behar lukeela

gauza berari buruzko ikerketa egitean. Ez da arraroa hain emaitza kontrajarriak izatea esperimentuetan?

Transgenikoei dagokienez, ez dut uste emaitzak kontrajarriak direnik ere. Erabilitako metodologia motak aldakorrak dira (laborategian egindako lanak daude, negutegian egindakoak, baldintza desberdinetan, teknika desberdinekin...), eta egindako ikerlan kopurua ez da aski ondorio garbirik ateratzeko.

Industriako bozeramaileek, baina baita ustez independenteak diren zientzialari askok ere, esaten dute egin direla proba nahikoak –proba asko, izan ere–, eta beraz arrazoizkoa dela seguruak direla pentsatzea.

Haiek diote ez dagoela transgenikoak bezainbeste ikertutako landararik, eta transgeniko bat merkaturatzeko proba eta ikerketa mordoa egin behar dela. Baina errealitateak dio gauza berriak agertzen direla haien inguruan. Madrilgo jardunaldietan Gilles-Eric Séralini doktoreak hitz egin zuen. Barietate transgenikoen eta herbiziden toxikotasunean aditua da Séralini, eta hain zuzen esaten ari garenaz jardun zuen. Ez dira test egokiak egin transgenikoen kaltegabetasuna frogatzeko, zioen. Berak egindako ikerketaren adibidea jarri zuen, arto transgenikoz elikatuko arratoiena. Hiru hila-bete eta gero, animaliek aldaketak zituzten desintoxikazioaz arduratzen diren organoetan: gibela, giltzurrunak... Haatik, emaitza horiek ez dira argitaratzen, eta ez da baimenik ematen esperimentuak luzatzeko. Probak –oso garestiak, bidenabar– egin dituzten bakarrak transgenikoak ekoizten dituzten enpresak eurak dira.

Hain zuzen ere Seraliniri, oker ez banabil, hiru urtez ikertzen segitzeko finantzazioa ukatu zioten.

Beharbada ikerlariok gehien kezkatzen gaituena gardentasun falta hori da, aukerak ukatze hori.

Esan daiteke, orduan, giroak ez duela berenberegiz honi buruz ikertzeko gogoaz pizten?

Noski. Zenbat ikertzaile dago oraintxe Espainian transgenikoez hitz egiten, esan dezagun, ildo honetan? Oso gutxi.

Batzuek diote transgenikoez zalantzak dituztenek ez dakitela zipitzik zientziaz.

Zaila da ikuspegi biak edukitzea, hau da, zien-

“Beharbada ikerlariok kezkatzen gaituena gardentasun falta da, eta ikertzeko aukerak ukatzea”

“Probak –oso garestiak, bidenabar– egin dituzten bakarrak transgenikoak ekoizten dituzten enpresak eurak dira”

tzialaria izatea eta benetan gai honekiko interesa izatea, batzuetan denbora galtzea delako. Imajina ezazu zientzialari independente batek emaitzaren bat lortzen duela. Argitaratu ahal izango luke? Ez dakit, ez daukat garbi.

Jardunaldietan aipatu zenuen beste arazo bat izurri erresistenteen agerpena da.

Bai. Landare transgeniko asko sortzeko metodoa izan da landare horri Bt bakterioaren gene bat txertatzea; gene horrek proteina bat sortzen du, eta proteina horrek intsektu izurriteak hiltzen ditu. Gerta liteke gene hori inguruko beste mikroorganismo edota landareetara igarotzea. Denok ezagutzen ditugu aukera hori egon badagoela dioten ikerlanak, eta beste batzuk non gene-ihes hori

dagoeneko atzeman izan baiten, eta non erresistentziak daudela frogatua izan baiten. Beharbada giro batean erresistentziak eratzen dira eta beste batean ez, ez da den-dena aztertu, beharbada lehenbiziko ikerketak egin ziren baldintzetan ez zen erresistentziarik bat-batean sortu, baina beste baldintza batzuetan bai... Ziurtasuna behar dugu halakorik gertatzen ez dela. Eta nik behintzat, bibliografia aztertu ondoren, ziurgabetasuna besterik ez daukat.

Transgenikoei buruzko literaturaren larregi estrapolatzen da, orduan?

Nik ateratzen ditudan ondorioetako bat da ezin daitekeela estrapolatu, eta gehiago ikertu behar dela. Irakurri ditudan artikuluen %99 ondorio nagusi bi horiek nabarmenduz amaitzen dira: alde batetik, datuak ez dira estrapolagarriak –izan aldeko, izan aurkako–, eta bestetik, kasu guztietan ikerketa gehiago egin behar da.

Ez dirudi hori denik iritzi zabalduena zientzia komunitatean.

Ez. Proiektuak sustatzen dituztenen baldarkeria da hori, baina hala da. Espero dut aldatzeko, ez zaio beldurrik eduki behar ez gauza bati ez besteari.

Baldarkeria besterik gabe?

Hala uste dut eta hala diotsut. Hara, ez naiz ergela, eta badakit interes ekonomikoak direla Intere-sak, letra larriz. Izan ere, bada ekonomikoez gain besterik? ■



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Gobierno
de Navarra

honako kanpainak abiatu du :

PARA QUE NO DESAPAREZCA

CONÓCELO

HONAKO MAPA BATEKILAN !



ez da hizkuntza ari...
"ez eta estatuak
berrezartzeak ere...
baiea europar bisoiak

BURUJABETASUNA



TTAKUN (H)ERRENKA

Sortzaile handiak

Telebista itzaltzen dugunean ez dugu askorik galtzen. Nik, egia, ez dut horretan zer galdurik batere; irabazia bai handia. Niri, telebista aipatzen didatenean, zabor ontzietara joaten zait pentsamendua. *Sautrela* ez zuten joan den udazkenean emititu, diru faltagatik. Urtarri-laren 21ean hasi zuen azken denboraldia literatur saioak, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* zenari eskaintako atal batekin. ETBk literaturari eskaintzen dion saio bakarra apirilean amaituko da. Beñatek penaz hartu du albiste. Nik ere bai kezka handiz. Aginte guneek errespetu handia zor diote, itxuraz, “kultura” esaten dioten horri. Eta gero, hasian hasi, ez zaie kakarik inporta. Are gehiago esango dut, kakaren kudeaketa politikako gudu-zelai bihurtzea inporta zaie gehiago, kultur prekaritateari aurre egitea baino. Diru faltaren aitzakia horren atzean beste motibo batzuk ere ikusten ditut nik. Dirua aitzakia da, ez arrazoia. Krisia, diru falta, argudio ederra bihurtu da aginte taldeek kulturaren alde duten konpromiso falta ezkutatzeke. Begira: krisiaren kontu hau dena lehertu baino lehen, 90eko hamarkadan, hoguei urterekin, kultur zerbitzurako bokazioz Urretxun eta Zumarragan izan ziren udal gobernu ezberdinetara kultur proposamen berri batekin *in situ* azaltzen nintzen bakoitzean, lanpostua kenduko ote nien beldurrez hartzen ninduten beti; krisiaren kontu hau dena lehertu baino lehen, mende berriaren lehen bosturtekoan, hogeita hamar urterekin, jadanik Zarautzen bizi nintzela, kultur zerbitzurako bokazioz udal gobernura joan nintzen nire burua *in situ* eskaintzera, egingo ziren eta egin zitezkeen kultur jardueretan laguntzeko, esan zidaten deituko zidatela, deiaren zain nago oraindik. Illo

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

horretatik, orain gogoratze-ko modukoa iruditzen zait Andoni Egañak *Berria* egunkari-ko Plazatik atalean *Kalitateaz* (2012-01-14) izenburuarekin idatzitako artikulua. Zarautz, bizitza kalitateari dagokionez, hamar mila bizilagunetik gorako seiehun herritatik Estatuko hamahirugarren herrizat jo dute

Economía aplicada aldizkarian. Bizitza kalitatea neurtzeko kontsumoa, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurugiroa, lan-merkatua, osasuna, kirola eta aisialdia, segurtasuna, ikasketa maila eta kultura hartu omen dituzte aintzat. Eta “Kultura???” ondo harrituta galdetzen die Egañak txosten hori egin duten ikerlariei eta txosten hori ordaindu duten udaleko teknikariei. Zarautz herriak ematen digun adibidea oso emankorra izan daiteke. Nik, gaur, denboraren guardia zakurren azpian zeharo hartuta, modu ez-ofizialean gogaituta, herri zerbitzurako optimismo tragiko baten arri-muan, iraganeko ametsak zeharo simaur bihurturik, oro har kultur egitarauen inguruan zer egiten den ezin ulertu ditzakedan hondakin zistrinez beterik, gauza ikaragarri normaltzat ulertzen dut teknikarien ezaxola jasotzea, baina gauza ikaragarri tristea iruditzen zait Zarautzen bizi den idazle, poeta, musikari, aktore, bertsolari, eskultore, pintore, kulturgile, eta abar, eder piloaren ahalera

handia, goi mailako giza talde horren baliabide kreatzaileak astez aste herrirako alferrik galtzen ikustea. Dena den, itxaroten jakin behar dugu, etorkizunik gabeko gure kultur proposamen-hondakinen kudeaketari konponbidea urtebete barru emango zaio, atez ateko zabor bilketa Euskal Herri osoan ezartzen denean. Baina kontainerra jarri beharko digute. Zabor sortzaile handien rankingean baikaude. ■



« Diru faltaren aitzakia horren atzean beste motibo batzuk ere ikusten ditut nik. Dirua aitzakia da, ez arrazoia.

Krisia, diru falta, argudio ederra bihurtu da aginte taldeek kulturaren alde duten konpromiso falta ezkutatzeke »

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Arrontegiko zubia

Hamabi bat urte izango nituen. Arrontegiko zubia egiten zihardutela, hark ekarriko zituen onurak azaldu zizkigun aitak bazkaloste batean. Nik ez nekien zer zen

hura, ezta non zegoen ere, baina zer edo zer handia izan behar horrenbeste gorespen hartzeko.

Gure familia ez da bilbotarra, ezta bizkaitarra ere, baina ikustekoa zen zelako harrotasunez berba egin zigun aitak han egindakoaz. Seguruenik horregatik izango dut akorduan.

Ibaizabaleko ezkeraldea eta eskumaldea lotu zituen Arrontegiko zubiak. Ordura arte buelta handia zen alde batetik bestera errepidez joatea, Getxotik Barakaldora eman dezagun. Kilometro eta denbora asko bide korapilatsuetan. Orain ez diogu erreparatzen, baina orduan sekulako aldaketa izan zen.

Aitak ez zuen kotxerik, ez zen Bilbora joaten, baina Arrontegiko azpiegitura zein garrantzitsua zen azaldu zigun. Premiazkoa bilbotarrentzat eta bizkaitarrentzat, eta beraz, ona guztiontzat. Bere ikuspegia ez zen etxeko atarian bukatzen, ezta Gipuzkoan ere. Ez nion inoiz independentziaz berba egiten entzun, abertzale “epeltzat” hartuko lukete etiketazaleek, baina



Modernoak bai, baina

gure mundu txikiari

gorazarre eginez segitzen dugu.

Euskal Herri independentea

handiegia litzateke

euskaldunontzat,

laster hasiko zen

bakoitza berea

aldarrikatzen.

Apustu egingo nuke



Euskal Herriaz zuen begirada superabertzale askorena baino irekiagoa zela iruditzen zait.

Berandu konturatu nintzen horretaz, eta gaur egun espiritu horren faltan gaudela sumatzen dut. Mugarik gabeko munduan bizi omen gara, denok gara modernoak, baina nik esango nuke txokokeriak direla nagusi, eta gero eta indartsuago gainera.

Bilbon ez dakit zer egin dutela eta, Donostian kexu. Edo alderantziz. Batek diru gehiago ipintzen duela, bestea baztertuta sentitzen dela, hark bai eta nik zergatik ez... Gizartean eta politiko batzuegan ondo errotutako jokaera dela esango nuke.

Modernoak bai, baina gure mundu txikiari gorazarre eginez segitzen dugu. Euskal Herri independentea handiegia litzateke euskaldunontzat, laster hasiko zen bakoitza berea aldarrikatzen. Apustu egingo nuke.

Askotan pasatzen naiz Arrontegiko zubitik, eta pentsatzen dut norbaitzuegatik izango balitz oraindik ordubate edo gehiago emango genukeela Getxotik Barakaldora. Batzuegatik izango balitz, ez genuke ez zubi, ez autobia, ez metro, ez trenik izango. Abiadura handikoa zen txikikoa. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



bizitzea genuen amets, ametsa gauzatzeko gaitasuna fede, hautatutako bidea eskola. Tailerretan ikasi genuen goizik ugazabak eta gu ez ginela berdintasunean bizi, haiek ondoko tabernara egiteko ez zutela gure baimenik behar izaten. Garai hartako “*todos rojos separatistas*” modernizatu eta “*todo ETA*” bilakarazi zuten, tartean beren zepoan zientoka gizaki harrapatuz. Froga bakarra, sozializatu-tako sententzia, borroka antiterrorista bezala hedatua. Oro da asesino hemen, ez soldadutzan ez barrakatan, inoiz armarik ukitu gabea ere asesinoa da, kolaboratzai-

Berdintasunean

leen teilapeak Euskal Herria estaltzeko adina lekua du. Jon Anza desagertua eduki zuten urtaro andana. Senideek ez zuten bertsio ofiziala sinetsi eta beren iritzia eman zuten, Realak San Mamesen sartutako gola bezain argiki. Zigortu egin dituzte beren ebidentzia adierazteagatik. Berdintasunean bizi bagina, Espainiako presidentearengandik hasi eta politikari zein kazetari tropa bereziki zigortua beharko lukete, “oro da eta” erabiliz sekulako eskandaluak burutu eta burutzen lagundu dutelako. Torturatu, sei bat urtaroz kartzelatu eta absolbitu duten azkena lekuko. ■



Edorta Arana

EHUKO IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ETA PUBLIZITATE SAILEKO IRAKASLEA

The End

Umeen jolasetan nahiko modu naturalean agertzen da heriotza. Bizirik egotetik betirako joaten denaren azken uneak, helduek baino errazago irudikatzen dituzte adin txikikoek. Lurrera jausitako eskulturak bailiran besokak zabalik, arnasa hartu barik eta begiak itxita ageri zaizkigu antzeztutako hildako horiek.

Zinean eta telebistan ere, askotan erakusten dizkigute hiltzen ari direnen irudiak. Ikus-entzunezko medioetan gainera, gehienetan errekurtsu narratiboa izaten da heriotza eta benetakoarekin antzekotasuna bigarren mailako kontua izan daiteke.

Azken denboraldian, hileta dezentera joan behar izatea suertatu zait eta arretaz entzun ditut adinduek ondo hiltzeari buruz esaten dituztenak. “Sinatuko nuke nik halako bat”, “txoritxo bat bezala hil da” ala “lasai joan da” bezalako esaldiak aurkitu daitezke beraien diskurtsoetan. Jakin badakitelako bestelakoak ere egon badaudela, gura baino gehiagotan. Izan ere, heriotzarako bidea tortura hutsa izan daitekeela erakusten duten kasuak ez dira gutxi izaten, agonia jasanezina bilakatuta.

Itzulerarik ez zeukan gaixotasunak jota aita minetan luzeegi egon baitzen, egunak



JUDIT FERNANDEZ

«
Heriotzarako bidea
tortura hutsa izan
daitekeela erakusten
duten kasuak ez dira
gutxi izaten, agonia
jasanezina bilakatuta
»

gaizki eta gauak amaierarik gabeak, aieneka. Minbiziak aurpegirik latzena erakutsia zion gizon hari. Ordurako askotan hitz eginda ziren aita-alaba eta momentua heldutakoan gidoia pentsatuta zeukaten. Beraiek erabaki nahi zuten helmuga non jarri.

Gauzak baina aldrebestu egin ziren. Bidearen azken pausoak ematerakoan erraztasunak baino trabak aurkitu zituzten. Osasun zerbitzu publikoan pertsona eta profesional egokirik ez zuten eskura izan pasabide malakartsu hori eramangarria izan zedin. Azken atea lasai zeharkatzeko modurik ez eta gaixoak eta familiakoek inpotentziaz bizi izan zituzten egun haiek.

Sufrikarioa alferrikakoa izan zen. Agonia hark ez zuen inongo zentzurik ezta justifikaziorik ere. Azkena izango zuen gauean, muxu bat ematera hurbildu zenean “noiz amaituko da pelikula txar hau” bota zion gaixoak, beste inork ez entzuteko moduan, bakarrik zeuden arren. Alabak aitortu zidan telebista aparailua begiratu zuela keinu inkontzientean. Pantaila baina itzalita zegoen.

Egunak aurrera joan ahala gero eta garbiago dauka eskubide kontua dela duintasunez hiltzearena. Pelikuletatik albistegietara eramane beharreko kontuaz ari garelara. ■



TXANDAN

Juanra Makuso



...txin txin, diruaren hotsak...

Tabernan entzun nuen lehengoan. Ordu txikitan ematen diren pasadizoak. Eta lagun konplizeak horrela bota zuen: “Ez dugu ba jada horren oroitzapenik. Agian Marxen *Kapitala* gau-mahaira atera behar dut, lo hartu ezinik nagoen gauetan, bere irakurketarekin ea loak hartzen nauen”. Irudika itzazue inguruko ateraldiak eta irribarreak. Etxeratze batera, goizak bere lehengo argiekin batera, taxiaren irratitik, gure lokaldiari traba eginez, hau entzun genuen: “Islandiako lehen ministro ohia gaur epaitzen dute, bere garaian ban-

Txin txin...

kako krisia ez zuelako egoki kudeatu”. Gutxi gorabehera hori da ulertu nuena. Eta taxi gidariak: “Nori nahi diote sartu ziria? Politikari baten kudeaketa epaitzen epaimahai batean?”. Atzerako ispiluan ikusi nituen bere begiak, gure erantzuna bilatzen. Isiltasuna nagusitu zen. Etxera heltzerakoan, dutxako uraren azpian, nire baitan horrela pentsatu nuen: “Eta orain institutura joan eta materialismo historikoa azaldu behar diet nire ikasleei, duela ordu gutxi Marx aipatzearekin batera, jendearen txantxak eta irriak entzun ondoren”. ■



ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Sei aipu autore bila

Goibel nagoenean, ama zenaz oroitzen naiz gehien. Aurrekoan notizia txar bat jaso eta instintiboki hari deitzeko bulkada sentitu nuen, aspaldiko partez. Txunditu nintzen beharraren gertutasunaz. Nahi nuke haren babesa nolabait sentitu ahalko banu.

Garai batean *Amari* izeneko liburuia idazteko tentazioa eta ia proiektua izan nuen, hasieran amari eskainitako olerkiez osatua egon nahi zuena, baina, berehala, sentimenduaren hurbilak lanaren kalitatea neurtzea galarazten zidalako, hari buruzko poemarik gabe, omenaldi moduan, izenburuarekin baino geldituko ez zena. Halere, izena justifikatzeko aipu egoki bat bilatu behar nuen. *Amarik*, latinez, “maitatua izan” esan nahi du. Liburuak maitasunaren ifrentzia (alde pasiboa) erakutsiko zuen. Bururatutako aipua, “*Si vis amari, ama*” (Maitatua izan nahi baduzu, maita ezazu), esaldi ospetsu baten kopia argia zen: “*Si vis pacem, para bellum*”.

Aipua nori egotzi baino ez zitzaidan falta. Errazena, zenbat idatzi zuen aintzat hartuta, Seneka zen. Sinesgaitza egin zitzaidan Senekak benetan esandako perpausa dela jakitean, Luziliori idatzitako 9. gutuneko. Baina ez ninduen hainbeste ere harritu, Senekak dena irakurri, dena ikusi eta dena esan baitzuen, ia Jacques Dutronc-ek kantatu bezala: “*J’ai tout lu, tout vu, tout bu*” (Dena leitu, dena ikusi, dena edan dut).

Bide batez, Dutroncen letra honen jatorria bilatzen saiatu naiz, beste nonbait irakurri uste baitut, Mme de Sevignérenean, esanen nuke. Baina topatu dudana antzekoena, hirugarren pertsonan adierazia, La Bruyèreren testu baten hasiera da: “Arriasek dena leitu du, dena ikusi du”.

Argi dirudiena da guztia esanda dagoela. Euskal literaturari menturaz egin ahal izan diodan ekarpen bakarra, “oro errana da,



JOSU SANTESTEBAN

baina ez nik” lerroa, begien bistako kontu ezinago jakin baten formulazioa da, zeinetan meritua, koherentea izan behar badut, ezin baitiot neure buruari eman. Oraindik ez dut aurkitu nik ez beste zeinek esan ote duen. Hemendik herritarren laguntza eskatu nahi nuke aipuaren autoreia bilatzeko eta nire literatur hutsaltasuna argitzeko.

Zailtasunaz jakitun naiz, literaltasunari arreta ipini behar bazaio. Are Borgesek ere, aipatzaile handi horrek, ez zuen beti hitz zuzenekin asmatu. Poema batean aitortzen zuen: “*Cito mal a Virgilio*” (Virgilio gaizki aipatzen dut edo –Juan Garziak Borges bera itzultzean trinkotzen duen moduan– *daipat*). Hutsegite ohar-tua, bilatua, lanketa poetikoaren gakoetakoa daiteke. Borges harrotu daiteke, behin gutxienez, ilargiaz mintzo, Virgilio hobetu zuelako, gaizki aipatu omen zuen horretan, hain zuzen.

Eta ez da gauza erraza, historia osoan autore aipatuenetakoa Virgilio delako, neurtitz beti zuzeneko. Nik aipamen bitxi askoak aurkitu ditut, Virgiliorenak. Dylan Thomas-ek poema batean lerro surrealista hau ematen digu: “*The white bear quoted Virgil*” (Hartz zuriak Virgilio aipatu zuen). Berriki jakin dut Thomasek irudia nondik atera zuen; nori eta surrealisten gorrotaturiko Anatole Franceri hartu zion. *Pinguinoen ubartea* eleberrian ondokoa gertatzen da: “Izotz bloke baten gainean (...) hartz eme bat zegoen eserita, bere kumea besotetan zuela, eta Maelek entzun zion Virgilioren bertso hau astiro xuxurlatzen: *Incipe, parve puer*. Orduan agureak, tristuraz eta durduzaz beterik, negar egin zuen”.

Incipe, parve puer. Hasi, ene ume-txoa. Aipuaren jarraipena bilatu dut Virgiliorenean.

Incipe, parve puer, risu. Hasi, ene umetxoa, irribarrez.

Bai, ama, saiatuko naiz. ■

« Garai batean *Amari* izeneko liburuia idazteko tentazioa eta ia proiektua izan nuen, hasieran amari eskainitako olerkiez osatua egon nahi zuena, baina, berehala, sentimenduaren hurbilak lanaren kalitatea neurtzea galarazten zidalako »



irudia:

Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Mila kilo zorion



XDZ

*“Mila kilo zorion
dizugu eskaintzen,
beste urte berri bat
duzulako hasten.
Baietx asmatu zenbat
dituzun betetzen,
zergatik ez ditugu
txaloka kontatzan?”*

I

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei...
Umeak ginela,
paradoxa goxo bat
ez al zen pastela?
Putz egiten genuen
kandelaz kandela,
ametsak pizten ari
bagina bezela.

II

Bostekin sei kandela
desio ditugu,
ta hemeretzirekin
hogeiren aiduru.
Baina adin batetik
gorantza seguru,
beti bat gutxiago
nahi izaten dugu.

III

Bizikletak, panpinak,
jostailuzko trenak...
Lehen ilusioz hartzen
genituen denak.
Orain osterara dira
opari onenak,
paperarekin batu
ezin daitezkeenak.

IV

Bi ta bi, hogeita bi
urte betetzean,
telefonoak jotzen
zuen bakoitzean,
dardara bat sentitzen
nuen bihotzean,
nor bait nitaz oroitu
zela pentsatzean.

V

Zorionak, muxuak,
ta mezu andana,
gutxik zuzentzen ditu
ondokoengana.
Jaiotegun bat bada
ospatu nahi dana,
nola ez gogoratu
aita eta ama.

VI

Ametsak kandelaka,
lanak koloreka,
zorionak kiloka,
poza irribarreka...
Beti ezin da egin
zenbakiz neurketa,
bizitza neurri bako
zelai bat da eta.



DOINUA: Xarmengarria zira



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Igela

50 urte dira aldizkari heterodoxoaren argitzetik

Galbidea zekarren azalean aurkibidearen orde, hara noraino zen heterodoxoa *Igela* aldizkaria. 50 urte joan dira Parisko Saint Germain bulebarreko 15.ean erredakzioa jarri eta aurreneko aldiz publikatu zenetik. Txomin Peillenen eskutik berreskuratu dugu kli-klu bihurriak egin zituen argitalpenaren historia.

MIEL A. ELUSTONDO

PARISKO erbestean hainbestetan elkartu ziren Andima Ibiñagabeitia eta Jon Mirande. Literatura zuten hizpide. Hain zuzen, Andimaren bitartez ezagutu zuen Txomin Peillenek Mirande, eta bat egin zuten hirurek. Baita Txominen anaia Robertek ere. Ibiñagabeitiak erbestera bidea –Guatemala lehenik, Venezuelara ondoren–, hartu zuen 1954an, Mirande bakar antzean utzirik. Idatzita dagoenez, Txomin Peillenek bihotz eman zion Miranderi 1962ko otsailean, *Igela* aldizkaria sortu zutenean, Saint Germain bulebarreko 15. zenbakiko eraikinean. Berrogeita hamar urte dira joanak. Iraganera egin dugu bidaia, Txomin Peillenen eskutik. “Parisen jaio nintzen 1932an. Bi urte eta erdi Zuberoan egina nintzen haurretan, beste dozena erdi han eta hemen, bateko Fontenebleaun, besteko armadan... Orotara, hamasei urte neraman Parisen, baina ez dakit ziur nongoa nintzen, edo, hobeki esan, familia bilkuratik irten eta frantses munduan sarturik, esaten nuen: ‘Ni ez naiz hemengo!’, arrotz zitzaidan erdal mundu hura. Ondoren, 1946tik goiti abertzaletasuna deskubriturik, eta bazterrak kurri egirik, ez nekien nongoa nintzen ere! Hori sarritan pasatzen da...”. Eta zertan ote zen Jon Mirande. Peillenek erantzun digu: “Hura ere Parisen sortua zen, Euskal Herrian ere

**IGELAK EZ DU
IÑOR, EZERTARA,
DEUSETARA BULTZATZEN
SALBU ETA PENTSATZEN**



G.B.

ibilia, nahiz eta bertan oso gutxi egon 1953tik landa, eta hil arte. Badakit urtero aste bat pasatu zuela Jon Etxaideren etxean, Donostian, eta beste aste bat amaren etxondoan, Sorhüetako Xahoenenean. Oroitzen naiz denbora hartan Aljeriatik itzulia nintzela, amaitua zela hango gerratea *Igela* sortu genuenean”.

Jon Mirande eta Txomin Peillen, Parisen sortu bi euskaldunak Frantziako hiriburuko kultura giroan murgil egirik. “Parisko giroa garai hartan intelektualak zen. Intelektualak, berriz, Sobiet Batasunaren alde ziren, Jean-Paul Sartre ororen buru... Mirande lanbide aspergarrian ari zen lanean, soldata txiki


batekin, baina harrokeriaz, esnobismoz, ez zuen ikasketarik egin nahi, nik ez bezala, bai, irakasle eta titular izateko ikasketak egiten ari nintzen. Paris badakigu zer den, orduan ere bazen besta franko, baina gure bion bestak liburuak ziren. Hala ere, udan, Zuberoan herriko jaietan ibiltzen nintzen, eta aste bat pasatzen nuen Donostian Gotzon Egañaren familiaren etxean, arrotz”. Horrela zirela lotu zitzaizkion bi lagunak idazteari. Jon Mirande 1947. urtean hasi zen idazten, ondoko urtean Txomin Peillen, Txinako kondairaren baten itzuli, haurrentzako ipuinak asmatu eta idatzi, zenbait poema, eta *Gauaz ibiltzen dena* eleberria, 1953an idatzi zuena. Ordurako, abiarazia zuen bigarren eleberria, *Itzal Gorria*. Eta, 1962an, *Igela* aldizkaria hasi ziren egiten. “Euskaldunen eta espainolen zentsurak bultzatu gintuen horretara. *Euzko Gogoan* artikulua baztertu zizkiguten, bai Miranderi eta bai niri. Koldo Mitxelenak, berriz, Miranderi idatzi zion esanez ezin zela edozer argitaratu *Eganen*, bestela akabo zela aldizkaria”.

Garai hartako bi aldizkari nagusietan idazlanak argitaratzea ukatu zieten, *Igela* sortu zuten. Lehenengo zenbakian, 1962ko otsaila-koan, irakurri dugu argitalpenaren asmoa, *Heterodoxoen xede eta egingai bereiziak* artikuluan: “Gure mundu txar hau apostolu gaiztoz betea da. Batak laguna terrorismu egitera bultzatzen du, berak ezer egin gabe; besteak otsemaite zaitu bertutera, berak aplikatu egin gabe. *Igelak* ez du inor, ezetara, deusetara bultzatzen salbu eta pentsatzera predikatzen digutenek, ongiaren bidean, ez dutela guk bezain beste egiten”.

Euskaldun itsusia (The ugly basque)

“Frantsesek diote, famili barrenean dala bear arropa zikina garbitu. Ber asmoekin Ameriketan *Mad* errebista agertzen da. Amerikano bizimodu ta moden satira egiten azkarra da, guri asko ikasi digu; baina azkenik agertu den liburu batek gehiago. *The ugly american*, Amerikano itsusia, dauka titulutzat. *Igela* xumeago da eta gure euskaldun itsusiarena kronikatxo bat bakarrik izango da. Irakur zer dion Bertrand de Born *trobadore* zaldunak euskaldunetzaz, Errege Ricardo-ri zuzendutako *sirventes* edo poema batean: Ez zait euskaldunen konpainia Puta salduena baina gustatzenago”.

(*Igela*ren lehen zenbakian, 1962ko alean argitaratua)



Goikoa da *Igela* aldizkariaren lehenbiziko zenbakiaren azala. Sei zenbaki argitaratu ziren 1962 eta 1963 urteetan. Euskaldun eta heterodoxo direnen ezinbesteko erreferentzia da gaur egun ere.

“Jende askok, pertsona anitzek, paradisu bat itzematen dizute. Guk, ordea, infernu bat eskaintzen dizutegu, pozez eta alegantziaz erre gaiten (...) Zer da bizitzea atseginik eta plazerrak kentzen bazaizkio? Merezi aal du bizitze izena? (...) Bizitze atsegin-garriena da, zuurtzia izpirik gabe, joaiten dena”, Erasmusen aipu horrek biribiltzen du aldizkariaren heterodoxia gogoia.

Umoretik jo zuten, Filosofiak eta gaineratekoak alde batera utzirik. “Mirandek esan zidan euskaraz Filosofia hiztegia ez zela nahikoa garatua. Nik, orduan, *Igela* egitea eskaini nion, errusiar lagun batek Moskuko *Krokodilia* aldizkaria erakutsi zidalako. Mirandek Madrigo *La Codorniz*

zuen, eta nik *Mad*, AEBetako”. Horien bide-tik helduko zen euskarazko *Igela*. “Errusiarrak *Krokodilia*, espainolek *La Codorniz*, animalia bana hautatu zuten beren aldizkarietara izena emateko. Guk, *Igela*. Mirandek olerki bat egin zion igelari, nola ilargi janez hil zen bat, eta gure igela ‘culi faltaz’ [diru faltaz]. Bestalde, badirudi igelak, ahoa zabal-zabalik, barre egiten duela, eta kantatzen duenean erlijio letania bat bezala egiten duela. Hortik *Igela* izena”. Aldizkari ‘heterodoxoa’ omen. “Izen hori ezarri genion izenburuaren ondoren, Euskal Herriko kultura denbora hartan, ortodoxia katolikoaren pean bizi zelako”.

Umerezko aldizkaria egitea hartu zuten helburu. “Erabaki genuen herri baten heldutasunerako beharrezko zela autokritika, ezen diktaduretan ere egiten baitzen autokritika, hala Errusian nola Espainian bertan ere. Horra *La Codorniz* aldizkariak frankismo garaian egiten zuena, esate baterako. Bestalde, horretarako umorea behar zen, gure iritziko, bederen”. Bidea egiten hasi eta ez ziren bakarrik izan, izan baitzuten zenbait sostengu. Bigarren zenbakian irakurri dugu, *Afrika Baionan hasten* idazlanean: “Exker mila, bere huts larrien gatik, *Igela*-ri konfiantza egin duteneri; abonatuari eta berbiziki ohorezko abonatuari hala nola Karl Bouda jauna, Erlangen-eko Unibertsitatean irakasle, Beñat Possompes jauna Paris-ekoan irakasle, Haritschelhar jauna, Musée basque-ko buruzagiar, bai eta Gueraçague, Ibarrondo, Echaide, jaun andereri. Beren adiskide kritikez baliatuz *Igela* beti obetzen entseiatuko da, egin dioten ohorea mereitzeko”. Artikulu honek, dena den, lehen zenbakiari etorri zitzaizkion kritikak pekoz goratzea zuen helburua, idazkiaren hasiera gozo hori gorabehera.



BIDEGULEAK

Txomin Peillen eta Jon Mirande (1925-1972) izan ziren Igela aldizkariaren sortzaileak.

Lanean hasi ziren, Peillenek egiten zuelarik lan material guzia. “Grapatzea, postatik igortzea, ordaintzea... Izan zen, hala ere, Mauleko biarnes bat, Teule jauna, hein batean lagundu ninduen. Bazuen makina ttipi bat, inprimagailua, eta han inprimatzen genuen *Igela*. Prentsa banatzen lan egina zen, eta Parisko kai harresietan liburu saltzaile, sasoi hartan”. Aldizkariaren lehen alean ere jaso dago eskertza, frantsesez eta gaztelaniaz argia ikusi zuten bi artikuluetan. “Len eta azkena frantsesez”, “Len eta azkena erderaz” diote, nahiz eta 6. alean ere, azkenekoan, izan zen frantsesez argitaratu zenik. Geurea dugu itzulpena: “Eskertzen ditugu adiskide bizkaitar, gipuzkoar, zuberotar eta nafarrak, beren konfiantza eta laguntzarengatik. Eskerrak ematen dizkiogu

“Euskaldunen eta espainolen zentsurak bultzatu gintuen. 'Euzko Gogoa'-n artikulua baztertu zizkiguten, bai Miranderi eta bai niri. Koldo Mitxelenak, berriz, Miranderi idatzi zion esanez ezin zela edozer argitara 'Egan'-en, bestela akabo zela aldizkaria”

TXOMIN PEILLEN

Parisko zuberotar ‘bukinistari’, atergabeko laguntza eta bultzadaren bidez *Igela* argitaratzea egia bilaka dadin lagundu baitu”.

Teule jauna ez zen zuberotar bakana Frantziako hiriburuan. Zuberotarrak baziren, euskaldun askoren artean, Peillen oroit denez: “Parisen denak ez ginen zuberotar edo ondokoak. Zioten, euskaldunak lau milatik goiti ginela han. Bazen burgesia aberats talde txikia erdaldun edo euskara galdurik, baina abertzale amorratuak ziren besteei aholkatzen euskaraz hitz egin behar zela eta nola eta zer idatzi. Zuberotarrek talde zaharra zeukaten. *Eskualduna* zen haren izena. Dantzaldiak Eskual Etxe

santutik kanpo ematen zituen, eta diruarekin hurrei udako euskal bidaia ordaintzen. Burgesek zioten, gaitzespenez, Mauleko espar-

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Euskaldun zintzoen balada

Aldizkariaren 4. zenbakian argitaratu zen Txomin Peillenek aipatu digun testua. Joanes Mirandek sinaturik dator. Mirandek, 1950ean argitaratu zuen poema *Elgar* Parisko euskaldunen hilabetekarian, esanez: “Hilabetekari delakoak, nahiz ez duen bertze batzuen pretenzione ta balentriarik, bethi lekhu zabal bat utzi deraue ideia berrieri. Arrautzetik jalgi berri diren euskaldun kaseta egile batzuek etsenplu har dezatela”. Alta, *Enbata* aldizkariari ari ziren, kritikak jaso baitzituzten handik, eta *Igela* erantzun ere bai gogotik...

Miranderen poemak zazpi bertso ditu. Lehen biak aldatu ditugu hona. Izenburuaren azpian, honako oharra dakar parentesi artean: “Aldi berean Ortzi euskal jainkoari zuzendu galde othoitz bat dena, zintzo ez den batek eginik”.

Soin zabal, zalhu, txapeldun,
Euskaldun eta Fededun,
–Handi baita– sudur mintzo,
Zintzo dira, o! hain zintzo
Eta barnez oro zaldun...
... Nahiz arrunt den azala
(Izartetik hek bezala
Ortzi jaunak zaint’ nazala)

Ilhunpean zeuden lehen
Bainan JEL argia goihen,
Jautsi baita Euskadi-ra,
Agiturik bizi dira
Ahalikan eta zehen
Demokrat onen gisala.
(Argitzetik hek bezala
Ortzi jaunak zaint’ nazala)

tingileak zirela, “*les sandaliers de Mauléon*” baina horiek ia denak euskaldunak ziren eta beren artean beti euskaraz ari. Burgesek zioten zuberotar neskak prostituzioan ariko zirela, baina prostituzioaren arriskua Xarritonek eta beste apezek aipatu zuten, Eskual Etxearen egiteko aitzakia eta kontrol bezala. Sexu turismo mota hori praktikatu zuen Jon Mirandek, eta, behin baizik ez zuen Donibane Garazi aldeko neska bat aurkitu. Garai hartan, euskaldun zaharrenek eliza-mutil, hoteletako zerbitzari, neskame... lan egiten zuten, eta, bakan batzuek polizia lan egiten zuten. Gazteagoek ostatuak kudeatzen. Gero ostatuak erosi zituzten eta aberastu ziren. Zuberotarrak ginen Mirande eta biok ere, baina gu, *Igela* egiten. Mirandek zer egiten zuen? Gure izterbegiei erantzun, eta aldizkarian idatzi, umore beltza –horra, adibidez, *Euskaldun zintzoen balada*–, sadismoa, lapurreta egiteko moduez... Inoiz ez genuen ezer argitaratu gabe utzi, nik dakidanez, gogorregia zelako, edo beste arrazoiren batengatik. Nik ere umorezko eskaintzak egiten nituen,

eta testu zahar faltsu bat ekarri aldizkariaren orrialdeetara nire Jon Dane Akherrunerren bititze saindua”. Trufaren bidean abiatu ziren. “Herri literaturatik, hein batean. Azken zenbakietan herri literaturazko kantu, bertso eta beste argitaratu genituen”.

Sei zenbaki kaleratu zituzten. Orduan, utzi zioten argitaratzeari. Dirurik eza, batetik; kritikak, berriz, bestetik. Tartean, *Enbata* aldizkaritik heldu zitzaizkienak, eta erantzun zituztenak, 4. zenbakian irakurri dugunez: “[*Enbata*ko politikari argituek] nehondik eta nehola ere ez dadukate eskubiderik geuk hautatu dugun zuzenbidean (euskarazko idazkuntzan) guri leitzione egiteko. Horregatik gure bigarren numeroan garbiki erran genduen zer pentsatzen dugun gutzaz egin zuten aiphamen hypokritaz (...) Geu *Enbata*koak bezainbat euskaldun nazionalista gara eta hek nazionalismua ediren baino lehen hala ginen. Halarik ere, ari diren bidetik jarraikiz –hemen ere, heien jokhabide morala aipatu dut, ez heien politikaren egia edo gezurra–, uste dugu on baino kalte gehiago egiten ari zaotzkiola gure Herriari. Horregatik, gu ere aholku emailetarik bagina, gure aholkua heiei hauxe lizateke: ‘*pour une auto-suppression d’Enbata*’”.

Mirandek eta Peillenek sinatua dator artikulua. Zirimolaren erdian beti aldizkaria, amaiera arte Txomin Peillenek esan digunez: “Eta utzi nuen *Igela* argitaratzea, gure hogeita bost harpidedunekin eta subentziorik gabe diru galtzen ari nintzelako. Bestela ere, Miranderi esan ondoren uzten nuela aldizkaria berriz egitea, berak, lehenagotik zeuzkan *Igelaren* azalak baliatu, eta eskuin muturreko usaina zerion azken alea, ni abisatu gabe, eman zuen inprimaturik, justuki Goulvenn Pennaod naziak inprimaturik. Azken ale hura ez nuen nik banatu. Eta bi hilabeteren buruan nuen ikusi. Orduan izan genuen hotzaldia gogortu zen geroago, Hitlerren ‘kultura’ politikoaren kontra gaizki esan nuelako ere. Mirandek Ibiñagabeitiari idatzi zion ez ninduela gehiago ikusten... Andimaren heriotzatik landa berriz gonbidatu genuen emazteak eta biok”.


50 urte iragan dira eta Txomin Peillen ez da damu. Bertan behera utzi zuten *Igela* sei zenbaki egin eta gero. “Damurik ez. Eskarmentu hartaz zer bait gorde dut, bigarren mailako idazle egiten nauana: hogeita zenbait literatura libururen artean, bost umorezko eleberri gehi hogeit bat ipuin eman ditudalako... Bestalde, ondotik etorri ziren *Naparteid* eta *Ostiela!* Baina gure aldizkaria baino askoz hobeki eta giro askeago batean ausartago jokatu zuten...” ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Liburuak

KRITIKA

Hasi eta bukatu

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez

IDAZLEA? Gidoi egilea? Edo, gaur egungo freaky horietako bat besterik ez? Egia esan, oraindik ez dut Justin Halpern (Point Loma, AEB, 1980) eta haren liburuak kalifikatzeko adjektibo egokia topatu baina, tira, ziur naiz zuek ere ondo pasako duzuela *Aitaren pitokeriak* (*Shit My Dad Says*) irakurtzen.

Egia esan, gogorik gabe heldu nion liburuari. Arrazoa? Ez naiz Interneteko sare sozialen batere zalea. Halpern erabat ezezaguna zen niretzat, eta Twitterren bere aitaren lelokeriak zintzilikatzeagatik arrakasta masiboa lortua zuela jakin nuenean, ene oinarri moral egoskorrengatik edo, liburu pendienteen zerrendako azken txanda eman nion. Behin irakurrita, ez dut uste milaka pertsonarekin batera *Shit My Dad Says* webguneko (<http://shitmydadsays.tumblr.com>) jarraitzaile amorratua bilakatuko naizenik, ezta sare sozialei buruz daukadan iritzia aldatu zaidanik ere. Imajinazioa eta orijinaltasuna ukatu ezin zaion arren, Halpernengana-ko erlazioa haren liburuarekin hasi eta amaitu egin dut.

Zintzotasunez, Halpernek azaltzen du bere arrakastaren jatorria. 28 urterekin, neskalagunak utzita eta lana galduta, gurasoen etxera itzuli behar izan zen. Ordurako, Sam Halpern, 63 urteko aita, erretiroan zegoen eta orduak igarotzen zituen etxean, munduaz gaizki esaka, bere nortasun zakar bezain



Aitaren pitokeriak.
Justin Halpern.
Itzulpena: Uxue Alberdi.
Alberdania.
160 orrialde. 15,80 euro.

dibertigarria agerian uzten duten komentario lotsagabee-kin. Justinek, aitaren esaldiak hartu eta bere “egoera-mezu”-tzat zintzilikatzen zituen Twitterren. Nork espero zezakeen etxe barruko kontuak fenomeno sozial bilaka zitezkeenik? Nola azaldu bere aitari, egun batetik bestera milioika jarraitzaile dituen *Family Guy* prototipoaren irudi berria bilakatu dela? Horra Sam Halpernen erreakzioa, semea kontuarekin joan zitzaionean: “Argitaratu nahi duana. Bi baldintza baino ez dizkiat jarriko: ez diat inorekin hitz egiteko asmorik eta, kopurua edozein izanda ere, irabazten duan diru guztia hiritzat. Nik ez diat hire diru zikinik behar, badiat neurea”.

Horren emaitza, Justinen haurtzaroaren eta gaztaroaren bitarteko pasarte hautatuez eraikitzen den umorezko autobiografia dugu. Justinek gogoratzen du bere haurtzaindegiko lehen eguna, eta aitarengandik jasotako laguntza lasaigarria: “Gogorra iruditu zaik? Ba, haurtzaindegiak estresatzen bahau, oso berri txarrak zauzkaat geratzen zaian bizialdiari buruz” edo, jendearekin atsegina izan beharraz jaso zuen gomendioa: “Aizak, bazekiat ez zaiala lodikote horrekin jolastea gustatzen, ama ahozabal hutsa dik-eta. Baina umeak ez dik ama urdanga baten semea izatearen errurik. Saia hadi berarekin atsegina izaten”. Eta, nola ez, lehen neska-lagunak utzi zuenean aitak bota zizkionak: “Aizak, ulertzen diat hi lur jota egotea, baina hemeretzi-ina urte dituzue, ez huen ba pentsatuko gizaldi eta gizaldietan harekin bakarrik txortan egiterik, ezta?”.

Momentu desberdinetan, aita-semeren arteko erlazioa islatzen duten eta telesail komiko batetik atereak diruditen *sketch* itxurako narrazio laburrak dira. Eszena bakoitzaren amaieran, bere aitaren-gandik entzun izandako erokeria solteen zerrenda eskaintzen digu, Twitterren zintzilikatuko zituen aita astakilo baten perla bikainen gisara.



bardoak 2012
nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



hauetzailea

argia



MARTXOAK 17, LARUNBATA

LEITZAKO AURRERA ELKARTEAN, 18:00ETAN,
BERTSO SAIOA
LEITZAUNDI (LEITZA) - ERAUNTSI (MALERREKA/ORONOZ)

IGANTZIKO BILTOKI ELKARTEAN, 21:00ETAN,
AFARIA ETA BERTSO SAIOA
RIMAK EXKAKKO (LESACA)
BERTZE MALDIKOAK (IRUNEA/AURITZ)

MARTXOAK 18, IGANDEA

BARAÑANGO ALAITZ IKASTETXEAN, 20:00ETAN,
BERTSO MERENDUA
BETERANOAK (BARAÑAIN)
BILIXKORRIKO (ETXARRI ARANATZ)

Informazio osoa eta zurrerak

www.BARDOAK.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Gorantz erori...
Antton.
Baga Biga.
Iraupena: 37'22".
11 euro.

Altxatzeko modu hunkigarria

ELORRIKO Lor taldeko Landerrek eta Anttonek talde bihurtu dute hasieran bikote proiektua zena eta emaitza dotorea da. Hastapenetan bakarlari trazako proiektua zela erraz antzematzen da lan honetako kanta gehienek duten abiapuntua entzunda: tempo lasai eta goxoarekin, ahots ia biluziarekin hasten dira abesti asko, baina denbora gutxira taldea gehitzen da intentsitatea era oso berezian biderkatuz; gorantz doaz kantak klimaxerantz.

Melodiak borobiltzeko aukeratutako domekako estalkiak, guztiak dotoreak, pop-rock gitarreroa, new waveroa eta kasuren batean world-musicekoa dira. Luxuzko instrumentazioaz eta kanten goranzko garapenez gain, oso kontuan hartzekoak dira abeslariak transmititzen dituen melodia eta emozioa ere. Eta hitzek asko dute balore sinesgarrietatik; berriro altxatzetik.

www.anttonmusika.com

Antton

«Grabaketan, baliabide teknikoak baino naturaltasuna eta intuizioa lehenetsi ditugu»

“Izan nahi dudana eraiki eta nintzena desegin”. Zerotik hastea komenigarria da?

Lor-ek bazuen ibilbide oparo bat egina, Anttonek ibilbide xume bat, hau hala ere aurreiritzi gabekoa da, hortaz, badu zerotik hastetik.

“Maitasuna ixil-ixilik” dago gure inguruan barra-barra? A ze baikortasuna!

Gure herrian luzaroegi dugu maitasuna ixilik, zain. Falta zaizkigun lagun eta senideen hutsune hotza maitasunak daki ixil-ixilik duintasunez bero mantentzen.

Lan honetan ahotsa asko landu duzue, tarteka ia biluzik utzita...

Begiratu izan dugu kantari unean zer komeni zaion eta horrela bideratu ditugu ahotsa zein instrumentazioa. Badakigu zuzenekoari begira biluztasun hori kontra bihur daitekeela, baina kantagatik egin dugu apustu.



IBON URIZAR

Argia askotan agertzen da diskoan.

Ez gara iluntasun zale. Iluntasuna arazo moduan ulertuta; arazoan bueltaka ito baino irtenbidea bilatzearen aldekoak gara. Diskoan musika, mezu eta hitz aldetik ematen den zerbait da. Badira hemen iluntasuna mantentzen interesatuak, horren aurka argitasun puntu bat zuzentzeko era ere bada.

Hitzek asko dute barrura begiratzetik, norberaren eta kanpokoaren ona eta argia aurkitzetik, benetako baloreetatik eta altxatzetik.

Saiatzen gara hitzetan mezua txertatzen, mamia izaten, hermetikoegi egin gabe letrei erreparatzen dienak norbere irakurketa egin dezan.

Konponketa txukunak daude eta soinuak distira handia du. Gauzak oso argi zenituzten estudioa joan aurretik?

Gero ikusi dugu gauza txiki batzuk aldatuta emaitza hobetu genezakeela, eta akaso pena

horrekin geratu gara. Mikel Santosek lan itzela egin du. Grabaketan, baliabide teknikoak baino naturaltasuna eta intuizioa lehenetsi ditugu. Ondarroako Santos-en grabatu genuen; badira estudio hobeak eta medioetan aberatsagoak, baina lanak badu bihotz bat, bestela lortuko ez genuena. ■



Ezpalak

JON TORNER

‘Sortuko dira besteak’ kantaldia Arrasaten, martxoaren 31n

‘SORTUKO DIRA BESTEAK’ kantaldi zikloak Arrasateko (Gipuzkoa) Amaia antzokian egingo du geldialdia hilaren 31n. Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Pier Paul Berzaitz, Arantxa Irázusta, Petti eta Amets Arzállus arituko dira kantuan. Besteak beste, Xabier Leteren abestiak berreskuratuko dituzte kantariak, bakarka eta taldeka. Kontzerturako sarre-rak 15 euroan daude salgai Kutxaren webgunean (www.kutxasarrerak.net), kutxa-zainetan eta 943001200 telefono zenbakian. Emanaldia 19:00etan hasiko da. Arrasateko Udalak antolatuta du, ARGIAren, Antza enpresaren, A&M kultur promotoraren eta Goiena komunikazio taldearen laguntzarekin.



Hamar sortzailek proiektu bana garatuko dute Urdaibain



MAIDER LOPEZ eta Carlos Irijalba artista euskaldunek eta beste zortzi sortzaile atzeritarrek proiektu bana garatuko dute Urdaibainko Biosferaren Erreserban, Jaurleritzak eratutako

2012 Fundazioaren *Euskadi, bakea eta askatasunaren aldeko kulturen urtea* egitasmoaren baitan. *Zentzua eta iraunkortasuna* proiektuaren emaitzak uztailean ikusiko dira. Urdaibaiko txoko desberdinetan paratuko dituzte euren obrak bi artista euskaldunek eta Liam Gillick, Lara Almacégui, Gunilla Klinsberg, Renata Lucas, Oscar Tuazon, Lozano-Hemmer, Pieter Vermeersch eta Haegue Yang sortzaile abangoardistek. Obra gehienak behin-behinekoak izango diren arren, bakarren batzuk Urdaibain garatuko dira, Liam Gillick ingelesak (argazkian) Gernikako Astra fabrikari jarriko duena, esaterako.

MusikHerria kolektiboak agur esatea erabaki du, zazpi urteko ibilbidearen ostean. “Oso gazte hasi ginen eta oso indartsu, Euskal Herriko musikaren mundua iraultzeko ideiarekin”, diote diskoetxeko kideek webgunean paratutako prentsa oharrean. “Baina pertsona eta musikari bezala heltzen joan garen heinean, eta talde berriak gehituz joan diren heinean, ez ditugu ideiak eta diskurtsoak berritu edo, behintzat, ez dugu modu antolatu batean egin, eta argi dago elikatzen ez den proiektuak ezin duela aurrera egin”. Zazpi urteotan MusikHerriatik 74 talde zein bakarlari pasa dira eta 82 lan kaleratu dituzte modu fisikoan (CD, DVD eta liburuan).

Camané musikariak (Carlos Manuel Moutinho Paiva dos Santos du izena) irekiko du Bilboko BBK aretoko *Noites do fado* (Fado gauak) zikloa, apirilaren 25ean, Portugalgo Krabelinen Iraultzaren (1974) urteurrenean. Maiatzaren 9an Jorge Fernandok eta Fabia Rebordaok eskainiko dute emanaldia, 23an Antonio Chainho gitarristak, ekainaren 6an Maria da Fék eta 20an Ana Mourak (argazkian).



Miren Asiaín (Iruñea, 1988) Arte Ederretan lizentziatuak irabazi du haurrentzako albumak sortzeko Etxepare Saria. *Hara!* izeneko albuma aurkeztu zuen lehiaketara eta 6.000 euro jaso ditu. Ekainean Pamiela argitaletxeak argitaratuko du. Albumeko protagonista haur bat da eta amonarekin dabil batera eta bestera, igerilekura, erosketak egitera... Alabaina, egunerokoaren eta ametsetako munduaren artean kulunkatuko dira biak.

Arte Bizia plataforma aurkeztu zuten pasa den astean Donostian, Gasteizen eta Bilbon. Eskenak, Euskal Aktoreen Batasunak, Dantza Profesionalen Elkarteak eta Euskal Promotoreen Elkarteak osatu dute plataforma eta zuzeneko emanaldiek duten babes eskasa salatu nahi dute. Bi eskari egin ditu Arte Bizia, batetik, alderdi politikoek kulturaren hizketakidea izatea (behin eta berriz horrelakorik ez daukatela diotela adierazi du plataformak), eta bestetik, tokiko erakundeek, batik bat udalek, aurrekontuaren %0,7 erabili dezatela zuzeneko ikuskizunak programatzeko.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrek

UNAI BREA

Jainkoa bene-benetan hilko balitz

God is dead. Ron Currie Jr. (Viking, 2007).

EZ DA ERRAZA Ron Currie estatubatuarren lehenbiko eleberria deskribatzea. Agian horregatik, behinola nire eskuetara iritsi zen gaztelaniazko edizioan bederen, hegaleko iruzkinak kontakizunaren hasieran kokatzen du bosgarren kapitulura arte gertatzen ez den zerbait. Eta bederatzi kapituluko liburu batez ari gara. Baldarkeria hori da *God is dead* (Jainkoa hil da) nobelari aurkitzen diodan hutsik handiena. Bestela, biziro gomendatzen dizuet.

Lehen pasarteak Sudaneko errefuxiatu esparru batera garamatza. Gauza harrigarri bi gertatzen dira han: batetik, Colin Powellen arraza-kontzientzia esnatu egiten da. Bestetik, Jainkoa, dinka leinuko emakume batengan haragituta Lurrera bisitan etorri dena, hil egiten da, baina ez Nietzschek proposatutako zentzu filosofikoan, zentzu fisikoan baizik. Hil-hil. Existitzeaz utzi. Dena den, hori ez dugu bosgarren kapitulura arte jakingo, emakume-jainkoaren gorpua jan

duten txakurretako batek kazetari bati egindako adierazpenen bitartez. Liburuaren kontrazalean aipatzen badute txakurra, ez da hain bekatu larria izango neu ere *spoiler*-ean aritzea.

Nobelaren gainerako pasarte guztiek giro surrealista bera dute. Gehienek ez dute loturarik elkarrekin, eta badutenen kasuan, xumea da lotura hori. *Benetan* Jainkorik ez dela jabetu den mundu kaotikoa aurkezten digute, batak bestearen ondotik, atmosfera gero eta itogarriagoan murgilduko gaituzten istorio distopikoek. Baina ez zaigu argi geratuko —ez niri, behintzat— egileak erlijio-fedearen abantailak aldarrikatu nahi izan dituen, edo, aitzitik, fede horren makulurik gabe bere kasa ibiltzen ez dakien gizateriaren ahuldadea salatu. Kapitulu guztiak Bibliaren aipu batekin hasia egilearen erlijiozaletasunaren seinaleztat hartu izan dute kritikari batzuek, baina auskalo. ■



www.bilbohiria.com

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia

15 urte ospatzen!

12 astelehena 10:30
Txango Kulturala
"Bilbo ezagutzen" Miribillako tximiabik irtenda

14 asteazkena 21:00
Rafa Rueda Hitzaldia
Kafe Antzokian
"Enaren Geometria diskoaren sekretuak kantuz eta hitzez"
Doako sarrera

15 osteguna 21:30
Matxura Kafe Antzokian
Disko berria aurkeztera dator Mikel Kazalis, Aitor Abio, Fernando Sapo, eta Txarly Diaz kide dituen taldea
Sarrera: 5.00€
Kafe Antzokia, www.kafeantzokia.com

28 asteazkena 10:00
"Ibaizabal Magazina" Zuzenean
Kafe Antzokitik
Doako sarrera

2012 martxoa

kafeantzokia
www.kafeantzokia.com

15 osteguna 21:30 Matxura	16 ostirala 22:00 Leiva	17 larunbata 14:00 La Fhelle Padraig Cara	17 larunbata 22:00 Seaford * Maha
19 astelehena Argazki erakus.	21 asteazkena 14:30 Jon Sarasua (Hitzaldia)	21 asteazkena 21:00 Jonathan Richman	22 osteguna 21:30 Vendetta
23 ostirala 19:00 Bertsolari Gazteen Sariaketa	23 ostirala 21:00 Gabriel Aresti jaia	26 astelehena 20:00 Urbeltzen Dantza Ganbara	27 astelehena 21:00 Mark Lanegan Band
28 asteazkena 10:00 "Ibaizabal Magazina" Zuzenean	30 ostirala 22:00 McEnroe	31 larunbata 23:00 Willie Nile & Band	04 asteazkena 22:00 The Fakeband * Rubia


Bilbo Hiria Irratia - Done Bikendi 2, 6. solairua - 48001 - BILBO

Telefonoa: (+34) 94 424 37 04 - Fax: (+34) 94 423 52 09

© 2012 Kafe Antzokia. Irudiak: Argazkiak, Bertsolariak, Dantza, Musikak, etc.

ANA ZAMBRANO

Gaia: Euskal abeslariak



Kike Amonarrizen umorea

Politologo ingelesa

Politologia irakasle batek hone-
la azaltzen omen zituen Europa-
ko estatuen politika desberdinak:

“Ingalaterran dena dago baimenduta, debekatuta dagoena izan ezik. Alemanian dena dago debekatuta, baimenduta dagoena izan ezik. Holandan dena da libre, nahiz eta debekatuta egon. Eta Errusian dena dago debekatuta, nahiz eta baimenduta egon!”

Soluzioa

	B	M	A	Z	
	Z	H	A	M	P
	H	A	N	R	E
S	B	A	S	T	A
T	O	T	E	M	G
R	L	E	N	Z	I
U	K	O	A	S	U
U	R	I	N	I	A
U	N	E	T	A	K
	A	Z	P	O	E
	A	Z	P	I	J
	F	L	E	A	E



aldizkaria.elhuyar.org



Ezagutu *Elhuyar* aldizkariaren webgune berria

- ▣ Paperean dagoen edukia formatu digitalean.
- ▣ Edizio digitala deskargatzeko aukera.
- ▣ Eduki osagarria irakurtzeko atala: iturriak, bibliografia, bideoak, gaiarekin lotutako albisteak.
- ▣ Edukiei buruzko iritziak emateko bidea.
- ▣ Harpidetzaren datuak kudeatzeko gunea.

Irakurri *Elhuyar* aldizkaria zure tabletan. Harpidetzu eta parte hartu zozketan

Martxoaren 15etik apirilaren 15era bitartean *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariko harpidedun egiten bazara, tableta baten zozketan sartuko zara.

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin **+34 943 36 30 40** zenbakira.

Harpidetza Internet bidez egiteko, sartu **aldizkaria.elhuyar.org** webgunean edo idatzi mezu bat **harpidetza@elhuyar.com** helbidera.



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Beste bi odol talderen erantzuleak diren proteinak identifikatu dituzte



JENDE GEHIENARI galdetuko bagenio zenbat odol talde dauden, A, B, O eta AB (positibo eta negatibo) erantzuna jasoko genuke. Hori esanda, harritu egingo ginateke "jada identifikaturik dauden 30 odol taldeez gain beste bi antzeman dira berriki: Langereis eta Junior" inon irakurriko bagenu.

Nature Genetics aldizkarian irakurri berri dugu Vermont-eko Unibertsitateko (AEB) ikerlariek argitara eman duten artikulua. Lana AEBetan, Japonian eta Frantzia garatu da, eta horren emaitza ABCB6 eta ABCG2 proteinak, edo Langereis eta Junior, hurrenez hurren, topatzea izan da. Adibide gisa: Japonian 50.000 pertsonak Junior negatibodun odola daukate. Horren eraginez, amaren eta umearen arteko bateraezintasun arrisku handia dago.

Euskal Herrian ia ahaztuta baldin badago ere, joan den mendean oso normala izaten zen odola Rh negatiboa zuen amari ume bat edo gehiago hiltzea. Milaka urtetan arazoa izan den hori, orain txerto sinple batekin konpontzen da normalean, eta horixe espero dute, hain zuzen ere, aipatutako Japoniako populazioarekin gertatzea laster.



Ezkondur gabeko bikoteak, zoriontsuagoak ezkonduak baino

AEBetako bi soziologok hainbat bikote aztertu dituzte eta, batzuen eta besteen artean oso diferentzia nabarmenak ez badaude ere, ebatzi dute ezkonduak baino zoriontsuagoak direla ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak.

<http://ttiki.com/35526> (Gaztelaniaz)

Landareek sortutako glaziazioa

Orain dela 444 milioi urte amaitu zen Ordoviziar Aroan eguraldia pixkanaka hoztu egin zen, eta ezohiko glaziazio batzuk izan ziren. Hoztearen arrazoiak atmosferako CO₂ kopuruaren jaitsiera handia izan zen, lehenbiziko aldiz landareak lehorrean hazteak eraginda.

<http://ttiki.com/35527> (Gaztelaniaz)

Fukushima urtebete ondoren

2011KO MARTXOAREN 11N hasi zen Fukushimako leherketa-katea. Orduz geroztik asko idatzi da, baina gero eta gutxiago. Pertsona asko ebakuatu zituzten eta ebakutatuta segitzen dute. Zentrala, ofizialki bederen, kontrolpean dago, eta hamarkadak behar izango dira guztia desmuntatzeko.

Oraindik datu banaka batzuk azaltzen dira, hala nola, erreaktore batean tenperatura izugarri igo zela bat-batean, baina antza denez termometroa izorratu zelako izan zen; Tokioko hainbat leku eta unetan egindako erradioaktibitate-neurketek erradioaktibitate arriskua adierazten dutela noizean behin; Fukushima inguruko probintzietako barazkiek behar baino erradioaktibitate handiagoa izaten dute...

Badirudi gauzak *stand by* egoeran daudela, baina hori itxura besterik dela uste dut, bizia eta lurra inoiz ez baitira *stand by* egoeran egon...



Oxigenoa aurkitu dute Saturnoko ilargi batean

Cassini zundak 2010ean Saturnoko ilargien inguruetan hartutako datuak aztertu ondoren, zientzialariek ebatzi dute oxigeno-geruza txiki bat dagoela ilargietako batean. Ez omen da nahikoa bertan bizitzeko, ez behintzat guk bizitza ulertzen dugun eran, baina beste planeta batzuetan izan daitekeenaz itxaropen bideak zabaltzen ditu.

<http://ttiki.com/35528> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Alemaniarren eskutik

MEMORIAREN GALERARI galga eman eta zahartzeari eusteko erromero mediterranea, *Rosmarinus officinalis*, bezain ona bada ginkgo txinatarra, *Ginkgo biloba*. Eta ez dira horiek bere trebetasun bakarrak!

Ezagutzen den landare zaharrenetakoa da ginkgoa. Duela 300-250 milioi urteko Permiar garaiko fosilekin lotzen da. Argi ezagutzen ez diren arrazoiak tarteko, Txinako bailara batzuetan bizirik aurkitzen da; ikerketa genetikoaren arabera landatutakoak diren zuhaitzetan. Era berean Japonian, Korean eta Txinan bertan monasterioetan ere landatu izan dute.

Aspaldiko zuhaitz hau, monasterioetan kanpoan jarria eta aldareak eta ospakizunetarako tresnak bere zurez eginak, gurtua da. Horrezaz gain, bitxikeriaz josia dago. Dioikoa da: batzuk arrak eta beste batzuk emeak dira. Fruituak duen azido butirikoak kaka usain izugarria eranstean dio. Taxuz erasokodion gaitz edo izurritarik ez du pairatzen. Kutsadurari buru egiten dio eta hirietan asko landatzen da. Egurra jaten dion intsekturik ez eta altsumak eta aireko sustraiak emanez indarberritzeko duen ahalmena dela-eta luze bizi ohi da, milaka urte alegia. 2.500 urte baino gehiago duen aleren bat ba omen da...


Engelbert Kaempfer alemana izan zen, 1691n, Japonian Nagasakiko monasterio budistan, zuhaitz hau ikusi eta deskribatu zuen mendebaldeko lehen zientzialaria. Ginkgoa fosiletan besterik bizi ez zen landarea zela zioten garaiko lankide guztien iritzia

aurre egin behar izan zion. Erosi eta ekarritako haziak Utrechto Landaretegian erein zituzten, eta handik sortutako zuhaitzak oraindik bizirik dira.

Zientzialari eta landarezale izanagatik haragirako joera ere bazuen beste alemaniar batek, Goethek, ginkgoa eta bitan banatzen den bere hostoa aitzakia hartuta maitaleari eskaini zion 1815ean idatzi zuen poema sonatua. Zerbaiten esperantzan, noski...

Ondotxo gerora itxaropenaren zuhaitza deitu zaio, Hiroshimako bonbak txikizio nuklearra eragin zuen gunean bizirik iraun zuen bakarra ginkgoa izan omen zen eta...

Alemaniarren eskutik Nagasakitik Hiroshimara...



Goetheren *Ginkgo biloba* poemaren kopia, ginkgo hostoak itsatsita.



Kaltering

Edonolako kalitateko jakiak edonondik merke zuhurrean ekarri eta prantatu ondoren ikastetxe, lantegi, ospitale eta, gero eta gehiago, herri-bazkari edo afari edo edozein ospakizun-otordu banatzen duen enpresa. Ingurumenean, nekazaritzan, paisaian eta jendarte

eragiten dituen kalteengatik nik Kaltering deitzen diet. Kalitate eskaseko elikadurara sortzen duen loturagatik beste batzuk Katering diote. Batzuen bizkar lepoa loditzen dutenak gogora ekarriz Kartering esaten diene ere bada. Kalte, Kate eta Kartera, ingelesez noski!

Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com <http://www.alkartasunausurbil.com/>




Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Pintura, sanba eta mekanika kuantikoa

AMERICAN INSTITUTE OF PHYSICS



Ezkerreko argazkian, Richard Feynman fisikaria. Eskuinean, Feynmanen pasioetako hiru, ekuazioak, marrazkigintza eta emakume biluziak, apunte orri bakarrean uztartuta.

PASADENA, AEB, 1960. “Ofey” izen-goitiko margolariak masaje-etxe baterako enkargua egin eta margolana erosleri eraman zion. Baina masaje-etxeko jabea atxilotu zutela jakinarazi zioten. Koadroa atzera furgonetan sartu, eta, emazteari baimena eskatu ondoren, putetxez putetxe ibili zen artista bere lana saldu nahirik. “Ofey” izenordearen atzean Richard Feynman (1918-1988) zegoen, XX. mendeko fisikari nagusietakoa. Handik bost urtera, 1965ean, Fisikako Nobel Saria eman zioten.

40ko hamarkadan, mekanika kuantikoari buruzko tesia amaitu eta gutxira, bonba atomikoa garatzeko Manhattan Proiektu ezagunean parte hartu zuen Feynman gazteak. Proiektua amaituta, Cornell Unibertsitatean hasi zen irakasle eta, ondoren, Kaliforniako Teknologia Institutuan (Caltech). Nobel Saria elektrodinamika kuantikoaren teoriari esker lortu zuen, baina beste hainbat alor ere jorratu zituen: besteak beste, helio likidoaren super-jarioratasuna eta Feynmanen diagramak, espazio-denboran partikulen interakzioa ulertzeko eta kalkulatzeko kontabilitate-erregistro modukoak. Gainera, haren eskola eta hitzaldi bereziek fisika modu ulergarrian jendarteratzen lagundu zuten. Minbiziak hil zue-

nean, ikasleek oihal erraldoia zintzilikatu zuten Caltecheko liburutegiko teilatutik; *We Love You, Dick* (Maite zaitugu, Dick) zioen pankartak.

Fisikari karrera oparo hark ez zion beste gauza askorako tartea ostu. Margolari gisa trebatu eta hainbat erakusketa egin zituen, ospe zalan-tzagarriko negozioetarako enkarguren bat egiteaz gain. Musika ere landu zuen. Brasilen, esaterako, *frigideira* jotzen ikasi zuen. Eta ederki egingo zuen, Rioko sanba eskola batek inauterietan jotzeko aukeratu baitzuen. Aurrerago bongoak jotzen ikasi zuen, eta musikari talde bat bilduta, Parisko musikal lehiaketa batean ere parte hartu zuen.

Hirutan ezkondu zen, baina emakumeenganako pasioak ezkontzaren eremua gainditu zuen. Sexualitateari buruzko oso iritzi liberala zuen, eta topless-tabernen zale amorratua zen. Emakume biluziak ikusteak lasaitu eta inspiratzen zuela zioen, eta maiz paperezko ahozapietan ekuazioak idazten hasten zen. Horrez gain, hieroglifiko maiak irakurtzen ikasi zuen, kutxa gotorak irekitzen zekien...

Hil zenean, esaldi hau utzi zuen arbelean idatzita: *What I cannot create, I do not understand* (sortu ezin dudana, ez dut ulertzen).



Arrastoak

Egiptoko beste faraoi bat azaleratu da

SEN NEGT N RA izena agertu da berriki Luxorren egindako indusketetan topatu duten harrizko ate batean (beheko argazkian). Egiptoko Antzinaroko Goi Kontseiluak jakinarazi duenez, izena orain arte ezaguna ez zen XVII. dinastiako (K.a 1680-1589) faraoi bati dagokio. Garaiari erreparatuta, Sen Negt N Ra Egipto hiksoen okupaziotik askatu zuen erregeetako bat izan zitekeen. Baina indusketa lanetan jarraitu behar dute faraoiari buruzko informazio gehiago lortzeko eta, oro har, faraoi guztien behin betiko zerrenda osatzeko.



EGIPTOKO AGK

Faraoi ezezagunaren izena erliebe obalatuaren barruan dago idatzita.

Euskal Herria Bai (EH Bai)

Euskal instituzioa eta bake prozesua batera eraikitzen

Batasuneko Jean-François Lefort (Miarritze, 1970) eta Abertzaleen Batasuneko (AB) Peio Etxeberri-Aintzart (Baiona, 1973) kideekin solastatu gara. Euskal Herria Bai (EH Bai) koalizioaren izenean hitz egin digute biek ala biek. Frantziako presidente Nicolas Sarkozyk Ipar Euskal Herrira egindako bisita, datozen hauteskunde Presidentzialak eta Legebiltzarrerakoak, hala nola bi hauteskunde hauen kariatara EH Baik landu nahi duen proiektu politikoa izan ditugu mintzagai.

MIKEL ASURMENDI
Argazkiak: Dani Blanco

MARTXOAREN HASIERA MUGITUA izan da Ipar Euskal Herrian. Frantziako presidente Nicolas Sarkozyren bisitak –hilaren lehen egunean– hainbat herritarren oldarrak eragin ditu Itsasun eta Baionan. Hirugarren egunean, berriz, Batera plataformaren deiari erantzunez, 1.200 lagunek zazpi errepede-gune blokeatu dituzte. Gertakariak eta erreakzioak Frantziako mintzatoki politikoak inarrosi dituzte; tokiko hautetsi eta eragile politikoak darabiltzaten gaiak mahaigaineratu dituzte.



Batasuneko Jean-François Lefort (ezkerrean) eta ABko Peio Etxeberri-Aintzart EH Bai koalizioaren eledunak, hurrenez hurren.

Estatuko presidentea Euskal Herrira etorri da boz kanpainaren atarian. Zer iritzi duzue Sarkozyk jaso duen harreraz?

Peio Etxeberri-Aintzart: Gu, bistan da, poztu gara Baionan izan den mobilizazioaren karira. Gertatuak aitzinetik iragarri genuena baieztatu du, hots, Sarkozy ez zela Euskal Herrira ongi etorria izango. Izan ere, Sarkozyk ez du –ez presidente,

ez hautagai gisa– inolako interesik agertu euskal auziari begira, ez du proposamen izpirik egin gaur egun mahai gainean ditugun euskal problematiken inguruan. Frantziako edozein hirira joan izan balitz bezala heldu da Baionara, hemen gai bereziak daudela kontuan hartu gabe. Mobilizazioak egonezin soziala erakutsi du: batetik, krisi ekonomiko egoeran Sarkozyk sostengatzen



"Goi-mailako politikarien eta herriko oinarriaren arteko komunikazioa moztuta dago. Azken mobilizazioen ondoren gabezia hori ageriago geratu da". ETXEBERRI-AINTZART.

duen kudeaketa neoliberalaren desgokitasuna, eta bestetik, Ipar Euskal Herriko berezko instituzioaren –hizkuntzaren auzia barne– eskakizunaren aurrean gobernuaren axolagabekeria. Mobilizazioetan Euskal Herriko gatazkaren konponbide demokratikoa bideratzeko bake prozesua –presoen auzia barne– ez direla aintzat hartzen islatu ere da.

Alabaina, Sarkozy presidenteak euskal presoak hurbiltzea "posible eta desiragarria" dela erran du.

Etxeberri-Aintzart: Baiki. Jendar-teak erantzun behar bizia zeukan eta gutxienez emaitza hau lortu dugu: Sarkozy hainbat galdera erantzutera behartua izan da. Ondorioz, Sarkozy hori erraten entzun dugu lehen aldikoz. Gogo berezirik gabe erran badu ere, bada zerbait, eta interesgarria da, mobilizazioei esker behartua izan baita presoen gaia aipatzera. Sarkozy, bistan da, nahiago zukeen hona etorri eta Frantzia aipatu ohi dituen gaiez mintzatzea, ez Euskal Herriari doazkion gaiez. Alta, zuzenbideari eta printzipio politikoei lotutako gaia aipatu du, Sarkozyren ahoan ez dugu sekula euskal preso politikoen hurbiltzetaz deus entzun. Dena den, Sarkozy erran duena legea betetzea besterik ez da, baina neurri hori hartuko balu, gatazka politikari humanizatzeko gisako bat emango lioke. Gatazka politikaren konpontzeko amnistia dela inportantea jakinik ere, halere, hurbilketa

lehen urratsa liteke. Munduko gatazka politikoen konponketan presoen kaleratzea da emaitza. Sarkozy ez du hori erran, alta, bi estatuek printzipio eta ondorio hori onartu beharko dute prozesuaren bukaeran.

Sarkozyk erran duenak mugiarazi dezake Mariano Rajoyren gobernuak?

Jean-François Lefort: Neurri batean bai, horrelako hitzek bi estatuek gaiari buruz izan ditzaketen desadostasunak edo ñabardurak azalerazten dituztelako. Hori interesgarria da, baina ez da gauza arras berria. Jean Grenetek [UMPko Baionako auzapeza] prozesua laguntzeko adierazpenak egin ditu Frantziako Legebiltzarrean berriki, Jean-Jacques Lasserre zentristak ere Senatuan. Iragan abenduan, konponbidearen aldeko manifestazioan PSk berak ere parte hartu zuen. Hego Euskal Herrian prozesu politikoa aurrera doan ahala, indar politikoa hauek Iparraldean urratsak ematen ari dira. Boterean dauden indar politikoei konponbidearen aldeko mobilizazioetan parte hartzeko beste jarrera bat agertu dute. Noski, besterik da Frantziako Estatuaren praktika. Hamabostean behin atxilotetak egiten ditu, ETAren edota gazte mugimenduaren kontra joz. Oraindik ere Euroagindua aplikatzen du. Errepresioa da Sarkozyren gobernuaren benetako praktika. Baionako harrera txarra horregatik jaso du neurri batean.

Batera plataformaren mobilizazioak ere izan dira. Deialdiak 1.200 lagun bildu ditu zazpi errepide-gunetan.

Etxeberri-Aintzart: Baterak burututako mobilizazioetan gauza argi bat ageri izaten da: indar politikoei proiektu instituzional ezberdinak ditugula. Alderdi frantsesetako eta EH Baiko militanteen arteko ezberdintasunak agerikoak dira, adibidez, guk eskuduntza zabalenak dituen instituzio berezia nahi dugu, eta beste alderdietako militante zenbait, aldiz, instituzio murriztago bat. Alta, Batera elkargune inportantea da, printzipio parte-hartzaileak batzen gaitu, hots, herritarrei kontsulta eskaini behar zaiola diogu denok. Sarkozyren bisitaren ondoren, berriz ere, Parisko politikarien eta euskal jendar-tearen artean dagoen deslotura agertu da zazpi bidegunetan. Goi-mailako politikarien eta herriko oinarriaren arteko komunikazioa moztuta dago. Azken mobilizazioen ondoren gabezia hori ageriago geratu da.

Anartean, Pays egitura agortu ondoren, Hautetsien Kontseiluak Lurralde Elkargoari buruzko ikuspuntua eza-gutaraziko du egun hauetan. Zer iritzi duzue horretaz?

Lefort: Egitasmo horren aitzinean jarrera ezberdinak daude. Alabaina, interesgarria da holako eztabaidaguneak izatea. Laster ikusiko dugu zeri erantzuten dion hautetsien azterketak. Lurraldeari buruzko eztabaida mugatua geratu daiteke, lurraldearen ikusmolde sozio-ekonomikoari begira soilik. Aldiz, gure ustez, euskal instituzioaren gaia une honetan Euskal Herrian garatzen ari den prozesu politikoa gaiarekin batera aztertu behar da. Gaia jendartean eztabaidatu eta adostu behar da, gure ikuspuntutik aldarrikapen instituzionala eta bake prozesua elkarrekin garatu behar dira.

Nolanahi den ere, Garapen eta Hautetsien kontseiluen erabakietan Estatuak beto eskubidea erabiltzen du eta eskakizunak mugatzen ditu praktikan. Horregatik instituzioaren gaia, ezinbestean, demokrazia parte-hartzaileari hala nola kontsultari lotu behar zaio. Prefetak edo Estatuak ez du Ipar Euskal Herriarentzat balio duena erabaki behar.

Aldiz, Estatuak euskaldunok nahi dugun estatusa erabakitzeko eskubidea bermatu behar luke. Hor sakoneko eztabaida dago. Aro berri honetan, bi estatuetan abiatu den bake prozesuaren gaitako bat kontsulta onartzea da, gure geroa erabakitzeko eskubidea onartzea.

"Instituzioaren gaia, ezinbestean, demokrazia parte-hartzaileari eta kontsultari lotu behar zaio" J. F. LEFORT

Frantziako Presidentziarako eta Legebiltzarreko hauteskundeak izanen dira hurrenez hurren. Zein da EH Bairen egitasmoa hauen aitzinean?

Lefort: EH Bai bosgarren aldiz aurkeztuko da hauteskundeetan, hori azpimarratu behar da, ez da beti erraz EH Bai koalizioa indarrean jartzea eta aurkeztu ahal izatea. EH Bai gero eta indar handiagoa hartzen ari da beste indar politikoen artean; aldion, ABko eta Batasuneko militanteek batez ere bultzatzen dugu EH Bai. Alabaina, egun, hauteskundeei begira lan egiteaz harago, funtsezkoagoa da beste behar bati erantzutea, eta da: ezkertiarrek eta abertzaleak ongi antolatzea. Zeregin horretan ez gara ABko eta Batasuneko militanteak bakarrik ari. Adibidez, iragan Herriko edo Kantonamenduko bozetako hautagaiak ez dira bi alderdi hauetako kideak izan, edo ez denak. EH Baik gero eta eragin gehiago dauka jendartean, horretaz kontziente izan behar dugu eta horren arabera antolatu. EH Bai egonkortu eta iraunarazi nahi dugu, eta horretarako jarrera berriak lantzen eta hartzen ari gara.

Eusko Alkartasuna ordea, ez dago EH Bain aldi honetan. Zergatik?

Etxeberrri-Aintzart: Hori EAri galdetu behar zaio. Guk erraten dugun gauza bakarra haxe da: aldi honetan EAK beste esperientzia edota koalizio batean aurkeztu nahi izan badu ere

[ekologistekin, besteak beste], inportanteena epe luzerako dinamika komun batean segitzea da. Alegia, EA ez delako gurekin, EH Baik ez dio bere izateari utzi, hots, EH Baik ez dio ezker abertzaleko indar guztiak metatzeko duen asmo eta dinamika kolektiboari uko egin. Ziur aski, etorkizunean EA berriz ere lotuko zaio EH Bairen proiektuari. Aldi honetan izan diren ezberdintasunek eta kalapita txikiak ez dute garrantzirik, garrantzia gehien duena da jendeholde berri bat abian dela eta ez dela geldituko. Testuinguru berri honetan ezker abertzaleko ildo guztiek deliberatu dute epe ertainean biltzea, hori da funtsezkoa. Horixe delako bidea, bai Iparraldean bai Hegoaldean indarrak metatzeko eta bozetan emaitza hobeak lortzeko. Bilduk eta Amaiurrek bildu dituzten emaitzak paregabeak izan dira, eta heldu diren bozetan ezker abertzalearen hautagaitzak emaitza izugarriak biltzea espero dugu. Hemen ere, bide beretik, Frantziako Legebiltzarreko emaitzak biziki onak izatea goaitatzen dugu, eta hori seinale

berria izanen da nazio mailako prozesu berriari ekiteko. Horrek guztiak abertzaleen eta ezkertiarren jarrera erakutsiko du: koherentzia.

Nola nahi duzue kanpainetan parte hartu? Beste alderdiekin aliantzak bilatuko dituzue? Zein dira xedeak?

Lefort: Proiektu politiko bat antolatzeko, lehenik, zure indar politikoa sustraitu behar duzu, eta zeregin horretan borroka ideologikoa etengabe landu. Horren egiteko moldeak eta momentuak daude: herri mugimenduen eta mobilizazioen bidez. Hamaika bide dira. Hauteskunde bidea bat da horien artean. Ezkerreko abertzaleok, EH Bairen bitartez, hauteskundeetan gure proiektua agertzen eta defendatzen ikasi behar dugu. Ondoren, aliantzak izan daitezke, baina horiek, zinez, bide laburreko ekimenak dira. Gure anbizioa lehen lerroko indar politikoa izatea da, eta horretarako borroka ideologia lantzen segitu behar dugu. Beraz, gure helburuetan ez dira epe laburreko emaitzak sartzen. Areago, guretzat datozen bi hauteskundeak



Gabriel Aresti euskaltegia*

Aste Santua

Barnetegiak

Astebeteko eta aste biko barnetegiak Bakaikun eta Bilbon

- Apirilaren 2tik 14ra
- Apirilaren 4tik 14ra
- Apirilaren 2tik 8ra
- Apirilaren 4tik 9ra
- Apirilaren 9tik 14ra
- Apirilaren 10etik 14ra

www.gabrielaresti.com

Done Bikendi 2 - 4. solairua - 48001- Bilbo - Tel: 94 423 75 91

baino funtsezkoagoak dira Herriko bozak. Ezker abertzalearentzat une nagusiak izanen dira zenbait Herriko Etxe irabazteko, eta orobat emaitza onenak ateratzeko. Legebiltzarreko bozak ez dira emaitzei begira gure interesekoak. Halere, ahalik emaitza handiena lortu nahi dugu geroa presatzeko. Horien ondoren gogo handiz lanean segitzen badugu, Herriko bozetan mugimendu abertzaleak sekulako emaitzak lortu ahaliko ditu. Presidentziarako kanpainatik beretik hasi behar dugu lanean, EH Bairen proiektua herritarrei helarazteko.

EH Baik nola aurreikusten du hautagaien zerrendak osatzea?

Etxeberrri-Aintzart: Presidentziarako bozetan ez dugu hautagairik aurkeztu, bistan da, baina ez dugu beste inor sostengatzen ere. Gure funtzioa hautagaiek sekula defendatzen ez dituzten gaiak mahai gainean jartzea da. Hots, Sarkozyren bisitaren kariatara plazaratu dugu instituzioaren arazoa. Beraz, horren kariatara hautagai bakoitzari interpelazio bat eginen diogu galdera multzo baten bitartez, eta erantzunak baloratuko ditugu publikoki. Horren arabera gure hautesleek deliberatuko dute boza nori eman. Hori da gure ekimen nagusia. Legebiltzarreko bozei begira, hiru hautes-barrutietan hautagaiak izanen ditugu geure programarekin. Erran bezala, gure funtzioa eta interesa ez dira mugatzen boz horietara, gure lehen mailako xedea Herriko bozak dira, eta horietan agertuko da ezker abertzalearen proiektu osatuagoa. Bi hauteskunde hauen kanpainetan, oro har, dela bozkatzeko printzipio proportzionalaren gaia, dela TVA sozialaren gaia [BEZ] edota gai ekonomikoak aipatuko ditugu. Gai bakoitzaren inguruan herritarrek gure mezua ukanen dute, beraz, gure proiektu politikoa prestatzen eta egokitzen ari gara Herriko bozei begira. Hots, ezkerreko abertzaleek hauteskunde hauen oihartzuna baliatu nahi dugu gure proiektu politikoa eraikitzen joateko. EH Baik epe luzera begirako proiektu politiko sendoa izan behar du.

François Hollande hautagaia ere etotzekoa da. Zerbait espero duzue PSko hautagaiaren bisitaz?



"Hollande etortzen bada mobilizazioak izango dira, orain arte ez baitu deus proposatu Euskal Herriko problematika konpontzeko". J. F. LEFORT.

Lefort: Hollande etortzen bada mobilizazioak izango dira, orain arte ez baitu deus proposatu Euskal Herriko problematikak konpontzeko. Gainera, erran gabe doa, alderdi sozialistak sistemak praktikatzaren duen politika ekonomiko liberalarekin bat egiten du, PS sistema horren indarra eta zutabea da.

"Sarkozy hainbat galdera erantzutera behartua izan da"

PEIO ETXEBERRI-AINTZART

Hollande presidente berria izan liteke. Aukera horrek baldintzatu dezake EH Bairen aritzeko moldea?

Lefort: Gure kanpainaren ildo bat bake bidean gure ekarpena egitea da. Gu prest gaude gure ekarpen politikoa egiteko, areago, berak Euskal Herriaren aitortza politikoa egingo balu, ongi etorri. Hollande presidente balitz, gu prest ginateke ariketa horretan sartzeko, baina horretaz ez da hauteskunde giroan mintzatzen, boterean legokeen unean baizik. Sozialisten promesak ezagutzen ditugu, praktikan badakigu zer egin duten iraganean, ez dute egundo beren hitza bete.

Estatuaren beste deszentralizazio politika bat garatu lezakete sozialistek. Esperantzarik bai?

Etxeberrri-Aintzart: Eskuinak berriz irabazten badu, Lurraldeen

Erreforma gauzatuko dutela diote. Sozialistek irabazten badute, berriz, hirugarren aldikoz, Frantziako deszentralizazioa gauzatzen saiatuko direla erran dute. Hitzak baino ez dira, alabaina. Guk testuinguru horretan gure proiektua garatu behar dugu. Sozialistak ezagutzen ditugu, François Mitterrandekin hasi eta Lionel Jospinekin gero. Sozialistengan-dik heldu daitezkeen esperantzak fini ziren aspaldi. Guk lehenik ekintzak nahi ditugu, eta gero, horien arabera, beharbada, konfiantza emanen diegu, baina ez alderantziz. Hollande presidente balitz euskal problematikari buruzko nolako neurriak hartzen dituen ikusi ondoren, galdera horri erantzun ahal izanen genioke.

Euskal Herriko gaiak bi hautagai nagusien arteko lehian tokia baduela pentsatu dezakegu, halere?

Lefort: Bai, Euskal Herriko agenda politikoa dela kari, bi hautagai nagusiak lehian ari direla pentsatzea ongi liteke, baina guk ez dugu ametsik egiten. Badakigu hauteskunde giroan hautagaiek promesak egiten dituztela. Guretzat orain, garrantzizkoena Euskal Herrian dauden indarren metaketa sustatzea da, ondoren, presidentea izanen denaren aitzinean bere politika baldintzatzeko. Oro har, lehen zeregina Euskal Herria eraikitzeak bildu behar ditugun indarrak gureganatzea da Madril eta Parisko politika baldintzatzeko. ■



Medikuntza Fakultatea

Euskaraz %33 gaztelaniaz %67

Bi eguneko itxialdia egin zuten EHUKo Medikuntza eta Odontologia Fakultateko ikasle batzuek joan den urtean. Medikuntza euskaldundu! mugimenduko ehun bat kidek komunikabideen arreta piztea lortu zuten. Euren aldarrikapena, ikasketak euskaraz egin ahal izatea. Osasun sistemaren euskalduntzea kinka larrian dagoela salatu dute.

SAIOA LABAKA



Medikuntza euskaldundu! taldeko kideak protestan. EHUKo Medikuntzan sartzeko lehia handia da, Espainiako edonork eman dezake izena. Gaztelaniaz ikasten dute kanpoko guztiek, jakina.


EUSKAL HERRIAN eskaintzen diren goi-mailako osasungintzako ikasketak hauek dira: Medikuntza, Odontologia, Erizaintza eta Farmazia. Euskal Herriko Unibertsitateak gradu guztiak eskaintzen ditu, baina

Erizaintza da euskara hutsean egin daitekeen bakarra. Adrian Aginagalde EHUKo Medikuntzako ikasleen kontseiluko kideak ikasketa horietan euskarak daukan egoeraren berri eman digu.

Sarbide estuagoa euskaldunentzat

Eskari handiko ikasketa da Medikuntza, nota altua behar da han sartzeko. Denentzat lekurik ez, eta gero eta gehiago dira Espainiatik

Medikuntzako* matrikulazioak eta selektibitateko ikasle kopuruak hizkuntzaren arabera



*EHUko Medikuntza Fakultatea.

EHUra etortzen diren ikasleak. Hego Euskal Herriko eta Espainia-ko unibertsitateek barruti bakarra osatzen dutenez, edozein ikaslek du aukera EHUko Medikuntzan matrikulatzeko. Horrek guztiak kalte egiten dio euskaraz matrikulatu nahi duen bertakoari, lehia handiagoa baitago. Euskaraz ikas- teko prest dauden ikasle asko kan- poan gelditzen dira urtero, eta kan- potarrek betetzen dituzte lekuak, gaztelaniaz ikasiz. Euskarazko matrikulazioaren beherakadan era- giten du horrek guztiak. “Euskal Herriko egungo egoera politikoak kanpoko ikasle gehiago erakarri ditu. Espainiatik datozen ikasleak dira gaztelaniazko matrikulazioa handitzen dutenak, eta ez gazte- laniaz matrikulatzen diren euskaldu- nak. Karrerako plazak hizkuntza- ren bidez mugatzea proposatu izan dugu, baina ezinezkoa da legearen aurrean. Katalunian ere saiatu dira antzeko proposamenak egiten” aipatu digu Aginagaldek.

Euskarazko matrikulazioak behera egin du nabarmen

Unibertsitateko zenbait irakaslek goi-mailako osasungintzako hiz- kuntza aztertu dute (ikus datuak alboko orrialdean), hizkuntzaren arabeko matrikulazio joera, hain

zuzen. Medikuntzari dagokionez, 1994-1995 ikasturteetik 2011-2012 ikasturtera bitarteko matrikulazioa- ren datuak erakutsi dizkigu EHUko irakasle Angel Bidaurrezagak. Urtez urte, eta pixkanaka, euskarazko eta gaztelaniazko matrikulazioen por- tzentajeak parera iritsi ziren. Esate-

**“Oso zaila da zenbait
espezialitatetan
profesional euskaldunak
topatzea. Hori da arazo
nagusia”**

**ADRIAN AGINAGALDE,
MEDIKUNTZAKO IKASLEA**

rako, 2005-2006 ikasturtean, euska- raz %46 (100 ikasle) eta gaztelaniaz %54 (119 ikasle) matrikulatu ziren. Hortik aurrera, ordea, euskarazko matrikulazioak behera egin du nabarmen; soziologikoki normala den tendentzia gelditu egiten da. Hauek dira aurtengo datuak: euska- razko matrikulazioa %33 eta gazte- laniazkoa %67. Aurten euskarazko matrikulazioa igo egin da apur bat, nahiz eta ehunekoak bere hartan mantendu diren. Iazko ikasturtean gaztelaniazko bi talde eta euskaraz-


ko bakarra atera ziren aurrera. Aur- ten, berriz, gaztelaniazko hiru eta euskarazko bi.

Bestalde, azterketaren arabera, 1999-2009 urte bitartean, haur hez- kuntzako ikasketak eta selektibita- tea euskaraz egindakoen kopurua handitu egin da nabarmen. Baina matrikulazioaren joera hori ez da mantentzen osasungintzako beste ikasketetan ere; Odontologian eta Farmazian. Oso igoera gutxi edota jaitsiera izan dute, Erizaintzak izan ezik. Aldiz, zientzia esperimental guztietan asko igo dira euskarazko matrikulazioak; Biologian eta Inge- niaritzan kimikoan, adibidez.

Gaztelaniaz ari diren euskaldunak

Medikuntzako ikasketetan sei ikas- turte daude, bi ziklotan banaturik. Lehen zikloaren barruan hiru ikas- turte daude, eta eskolak Leioan ematen dira. Egun euskaraz eskain- tzen dira ziklo horretako ikasgai guztiak. Bigarren zikloko ikasketak, berriz, lau erietxetan egiten dituzte: Donostian, Basurton, Gurutzetan eta Txagorritxun. Ziklo horretan daude euskaraz ikasten jarraitzeko arazoak. Hauek dira aipatutako lekuetan euskaraz lor daitezkeen kreditu kopuruak: Donostian %55, Basurton %40, Gurutzetan %20 eta Txagorritxun ezer ere ez. Agi-

Euskarazko matrikulazioak EHUn (1999-2009)



nagaldek aipatu digu lau zentroak euskalduntzea oso zaila dela, eta irakasle euskaldunen falta handia dagoela horren atzean. “Oso zaila da zenbait espezialitatetan profesional euskaldunak topatzea. Hori da arazo nagusia. Esaterako, Gipuzkoan badago auzi mediku euskalduna, Pako Etxeberria. Baina Bizkaian, ez, ordea”. Gaztelaniaz matrikulatzen diren euskaldunak ere badaude. Izan ere, laugarren mailatik aurrera gaztelaniaz ikasi behar dutela ikusirik, uste dute errazagoa izango dela hasieratik gaztelaniaz aritzea.

Irakasle euskaldunen beharra

Medikuntzako ikasle kontseiluan hainbat ekimen antolatzen dituzte egoera aldatzeko, unibertsitate barrutik egiten dute lana. Ikasgaiak euskaratzeko eskaerak egitea da ohikoena eta pixkanaka ari dira gauzak lortzen. Irakasgai bakoitzak irakasle euskalduna izan dezan, ahalegin guztiak egiten ari dira.

Aginagaldek esan digunez, ospitale-tan lanean ari diren profesional euskaldunak hezkuntzara erakartzeko

Medikuntzako bigarren zikloan euskaraz lor daitezkeen kreditu kopuruak ondoko erietxeetan: Donostian %55, Basurton %40, Gurutzetan %20 eta Txagorritxun ezer ere ez

plan baten beharra ikusten dute. Oso garrantzitsua iruditzen zaie irakasle berriak unibertsitatera ekartzea. “Ospitalean gaueko zaintza egin ostean, zuzenean eskolak ematera etortzen diren irakasleak izaten ditugu. Horrelako egoerak saihestu egin beharko lirake”. Hainbat eskaera egin izan dituzte: MIR azterketa euskaratzea, unibertsitate-

ko sarbidea hizkuntzaren bidez mugatzea, irakasleentzako euskarazko plazak mantentzea eta abar.

Ikasle berriak euskaraz matrikula daitezen hainbat kanpaina egin izan dute, ikasle euskaldunak euskaraz matrikulatzea da helburua. Ate Irekiak jardunaldietan euskaraz matrikulatzeak dakartzan onurak azaltzen dizkiete interesatuei eta baikortasunez euskararen egoera zein den azaltzen diete.

Arduratzeko diagnostikoa

Osasun sistemaren euskalduntzea kolokan dagoela argi dute zenbait ikaslek eta irakaslek. Hiru ondorio garbi ikusten dituzte: osasungintzako profesionalak ez dira euskaldunak izango, osasungintzako bezero euskaldunak ezin izango dira euskaraz aritu profesionalekin eta osasungintzako euskara, teknikoak zein arrunta, ezin izango da normaltasunez garatu. ■



Babeslea: Bilboko Udala


harrapa zank
www.harrapazank.com
bilboko gazteen euskarazko aisialdi zirkuitua

Bilbao euskara
topagunea

%71,1ak darabil beti edo ia beti gaztelania

EUSKO JAURLARITZAK Euskal Autonomia Erkidegoko V. Inkesta soziolinguistikoa aurkeztu berri du. Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako emaitzak aurki ezagutuko ditugula adierazi dute. EAERI dagokionez, 2011n 4.200 inkesta egin dituzte telefonoz eta horien emaitzak jaso dituzte. Hainbat datu esanguratsu eskainiko dugu segidan:

-16 urtetik gorako biztanleen %32 elebiduna da, %17,2 elebidun hartzailea eta %50, 8 erdaldun eleba-



karra. Portzentaje horien arabera, EAEn 600.050 elebidun daude, 1991n baino 181.000 gehiago.

-Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago; 16 eta 24 urte arteko gazteen %60 elebiduna da, 1991rekin alderatuta bikoitza.

-16 eta 34 urte artekoen erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi du euskara.

-Elebidunen herena hobeto moldatzen da euskaraz gaztelaniaz baino. Aldiz, gazteen artean bostetik bat baino ez da hobeto moldatzen euskaraz gaztelaniaz baino.

Gero eta gazte gehiagok daki euskara, baina gero eta gutxiago etxean ikasitakoa. Hizkuntzarekiko lotura zenbat eta urrunagokoa izan are zailagoa egiten zaio hiztunari, eta gazteekin horixe ari da gertatzen.

Erabilerari dagokionez, beti edo ia beti gaztelaniaz egiten du %71,1ak. Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago egiten du %8,9ak eta euskaraz beste gaztelaniaz %7,3ak. Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten du %12,7ak. -IV. inkesta soziolinguistikoa (2006koa) erabilera datuak ondoak izan ziren: %70,7ak gaztelaniaz baino ez zuen egiten; %11k euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago eta %6,1ak euskaraz gaztelaniaz beste. Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago egiten zuen %12,5ak.

-EAEn euskara gero eta jende gehiagok erabiltzen baldin badu ere, igoera nabarmenagoa da eremu formalean eta apalagoa etxean. Etxeko erabileran salbuespena seme-alabekikoa da, erabilera horrek gora egiten segitzen baitu. %86ak darabil euskara.

-Eremu formalean egin du gora batik bat erabilerak. Udal zerbitzuetan elebidunen %73ak darabil euskara eta osasun zerbitzuetan %59ak.

-EAEko biztanleen %62 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, 1991n baino 7 puntu gehiago. Aurkako jarrera gutxi aldatu da, orain %12 da eta 1991n %14.

Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Islandia bere politikarien eta bankarien atzetik dabil

1905ean gobernuak kideak epaitzeko sortutako Islandiako auzitegi batek, joan den astean hasi zuen Geir H. Arde gobernuburu ohiaren kontrako epaiketa. Islandiarrek bankuetako hainbat zuzendari salatu dute iruzurra egiteagatik eta lehen ministroa auzitara eraman dute arduragabekeria egotzita, fiskalaren arabera, bankarien gehiegikeria ilunak onartu zituelako. 2008an islandiarrek jakin zuten beren hiru banku handienak kiebran zeudela. Eta hori, bertoko zuzendariak neurririk gabe zorpetu zirelako, herrialdearen zorra hamar aldiz handitzeraino. Hiru bankuek hondoa jo zuten eta atzeriarekin ordainketak eten zituzten. Ondorioz, gastu soziala larriki murriztu zen eta langabeziaren tasa %10era igo zen.

Banku britainiarrekin eta holandarrekin zuten zorra 4.000 milioi eurokoa zen, %15eko interesarekin ari zirelako. Britainiar eta holandarrek kalteordaina eskatu zuten zor horrengatik, baina islandiarrek, erreferendumez, zorra ordaintzeari uko egiten zion legea onartu zuten. Auzia tribunaletara eraman zuten: bankariak euren porrotagatik eta politikariak finantza kolapsoa kudeatzeko orduan izandako arduragabekeriagatik. Islandiarrentzako, batzuk eta besteak gaizkileak dira, eta haien atzetik dabilta.

Espainiako Estatuan, Euskal Herrian eta Europan Islandiako eredu auzalduko balitz, estatuburu –monarkiak barne–, ministro, erkidegoetako lehendakari, ahaldu nagusi, banku eta kuxetako presidente eta kontseilariak epaimahaitik eta espetxetik igaro beharko lukete. Lapurrak izateagatik, lukurrerian ibiltzeagatik, gestio txarragatik, prebarikatzeagatik, iruzur egiteagatik eta herritarrek langabezia eta miserian uzteagatik. Horretarako beharrezkoak dira herri akusazioa eta Justizia independentea. Islandia baino beherago horrelakorik ez dago ordea!

Juan Mari Arregi




Eguzkia lurrera jaitsi gura zuen gizontxo

IPUIN honen hasieran ez da “bazein behin...” eta gisa-korik, Fukushimako istripu nuklearraren gordintasuna dago. Haren ondoren, energia nuklearrarekiko ezer berdina izango ez zela iragarri zen eta akaso hala izango da, baina *lobby* nuklearraren indarra eta interesak handiegia dira munduan, energia nuklearra nola hala atzerazteko.

Azken urte honetan Japonian gertatzen ari denarekiko, hedabide handiek –eta hauen inertzian diharduten txikiago gehienek– erakusten duten jarrera da horren erakusle argiena: Fukushima Daiichi-ko zentralaren egoerari buruzko informazioa etengabe ezkutatu da; hildako guztien egiazko kopuruak; erradiaktibitatearen eraginaren ondorioz gertatzen ari dena; Tepco-ren gezurrak, desplazatuaren egoera estua...

Informazioaren zirrikituak, alabaina, ugariagoak dira gaur egun eta egia erabat ezkutatzea gero eta gaitzago egiten da. Japonian gertatzen ari denaz zerbait jakin gura duenak lor dezake. Urtebete honetan ARGIAK informazio ugari eskaini du istripu honen gainean (Pello Zubiriaren blogean informazio osatua eta aberatsa topatuko du irakurleak) eta zenbaki honetan bertan ere Futaba herriko alkate den Katsutaka Idogawa-ren testigantza baliagarria eskaintzen da; gisa honetakoak diren dozenaka ahots eta albiste zabaltzeko beharra dago, Fukushima istripuaren egungo ondorioetara sikiera apur bat hurbiltzeko.

Lobby nuklearrak jarraitzen du saltzen istripu arriskua 240 urtez behin gerta litekeela munduan, baina historia hurbilak errotik eraitzen du bere gezur borobiletakoa.



Azken hiru hamarkadatan, 1979tik 2012ra arte, hiru istripu nuklear larri gertatu dira munduan: Three Mile Island (AEB, 1979), Txernobil (Ukraina, 1986) eta Fukushima Daiichi (Japonia, 2011). Jakina, istripuak izan askoz gehiago izan dira: horietatik, zenbat izango ote ziren istripu larrira ozta-ozta iritsi ez direnak? Gobernuak informazio nuklearrarekin nola aritzen diren ikusita galdera ez da batere inozoa edo erretorikoa.

JAPONIAKO TEPCO eta bertako agintariak egoera kontrolpean dagoela adierazten ari dira etengabe, baina errealitatea uste baino ilunagoa da. Japoniako 54 erreaktore nuklearretatik 2 bakarrik dira martxan egun. TEPCOk Fukushima Daiichiko hiru erreaktore arriskutsuenen egoera hotzean kontrolatua dagoela badio ere, azken asteotan izan dira berotze berriak, baina ez da ezagutzera eman zein tenperatura hartu diren; monitorizazioa ez da erabatekoa urtu diren hiru erreaktoreetan; 1, 2 eta 3 erreaktoreetako erregai barren egoera ez da zehatz-mehatz ezagutzen; ez dago airera eta uretara jaurtitako erradiaktibitatearen –herrialdean barreiatzen jarraitzen dena– informazio ofizial zehatzik...

Zalantza gutxi barik esan liteke, hemendik bat, bost, edo hamar urtera ezagutuko ditugula urtebete honetan gertatu direnak eta egun gertatzen ari direnak. Kalte-tutako beste askorena bezala, lehentxeago aipatutako Katsutaka Idogawaren deia-darra larria da: “Mintza zaitetze gutaz, esan zer ari zaitgun gertatzen. Esan zein eskandalagarria den herriak eta jendeak sakrifikatzea nuklearraren izenean. Esan munduari ingurumena zaindu behar dela. Kutsadura erradioaktiboa naturan barreiatzea, Japoniako Gobernuak egiten ari dena, hori geldiarazi beharra dago. Bestela planeta osoa kutsatuko dugu!”.

Eta ni, berriz ere, Alfonso del Val-en aipu batera jo beharrean nago (LARRUN, 2011ko ekaina) ustez energia nuklearraren muina non den kokatzeko, kasu honetan berea baino berak miresten zuen Ramón Margalef i Lopez zientzialariaren aipua: “Zientziak dioenez, lau mila milioi urte behar izan ditu Lurrak bizitzeko moduko planeta izatera iristeko, bata bestearen ondotik garatu direlako bakterio zelulabakarrak, zelulaniztunak, mikroorganismoak, ornogabeak, ornodunak eta abar eta abar, ororen buru lortu da atmosfera aerobioa sortzea, lortu dugu bestela hilko gintuzkeen eguzkiaren energia filtratzea, eta azkenean, naturak lortu duenean eguzkia den zentral nuklear erraldoiaren erradiazioak filtratu eta planeta bizigai izatea... orduan iritsi da gizakia eta eguzki hori lurrera jaisten du, prozesua kontrolatzen duela argudiatuz”. Nola bukatuko da ipuina?



Futabako alkatea: “Jendeak sakrifikatu zaizkie nuklearrei”

Oraindik alkate den Futaba herritik urrun bizi da Katsutaka Idogawa Tokioko ikastetxe batean aterpeturik 500 erkiderekin batera. Berlingo zinemaldian aurkeztu duten *Nuclear Nation. The Fukushima refugees story* filmaren protagonistetako bat da. Fukushimako hondamendi nuklearraren biktimak ez ahazteko erregutzen du.

HERRIKO ZENTRAL NUKLEARRA lehertu ez balitz 2011ko martxoaren 11n, inork ez zion kasurik egingo Futabako (Fukushima probintzia, Japonia) auzapezari. Nor arduratuko zen 6.400 biztanleko herrixka batez, ez bazen hango hondartzak ezagutzen zituenen bat? Fukushimako zentralaren hondamendiak Japonia osoan sakabanatu dituen iheslariez *Nuclear Nation. The Fukushima refugees story* estreinatuzera Berlinera konbidatu dutenean, ordea, lekukotasun samin bat bideoz Interneten utzi beste modurik ez du izan.

Idatziz haren lekukotasuna Janick Magnek bildu du *Le Monde* egunkariaren blogetako batean, *Fukushima: l'enfer d'un accident nucléaire* (Fukushima: istripu nuklear bat infernua da) sarreran. Magnek 33 urte daramatza Japonian irakasle, 2012ko frantses hauteskundeetan atzeritarren hautes-eremuan hautagai aurkeztu zen Europe Ecologie taldearekin.

Magnek Idogawa alkatea otsailaren 12an bisitatu du. Futabako 1.300 herrikiderekin sartu zen Tokioko Kazo auzoko institutu batean, orain 500 inguru geratzen dira. Futabatarren alkate jarraitzen duenez, bisitari berak egiten die harrera, kontatuz 12 hilabeteotan ikusi eta ikasitakoak.

2011ko martxoaren 12an itsu-mustuan egin zuten ebakuazioa.

Nora joan nola erabaki? Udaletxe aurreko bandera batean haizearen norabideari begiratu eta kontrako bidetik abiatu. Ahal zuenak bere autoan. Gaixo eta zaharrak parkingean autobusaren zain zeudela lehertu zen 1. erreaktorea. Irradiazioa gainera erori zitzairen turbinaren isolatzaile zatiekin, “elurra ari balu bezala” dio Idogawak, “orduan jabetu ginen gureak egin zuela”.

Tsunamiak bizirik utzitako futabatarrek Japonia osoan barreiatu dira. Tokioko Kazo ikastetxean hasieran %20 inguru, gero urritzen joan direnak. Haurrak zituzten familia guztiek egin dute alde, zaila da gune hau umeentzako. Zaharrek hobeto daramate.

Gela batean sei bikote daude, lurrean *tatamiak* zabalduta, arropa eta puska bakanak agerian txukun antolatuta, dena denen agerian. Txoko diskretu bakarra, ate ondoko kartoizko kabina, janzkiz aldatzeko. Egutero bi otordu hotz, 10 hilabeteetan berorik ez dute probatu, ez bada te berdea. Fruiturik ez da iristen. Bainu prefabrikatu batzuk ipini berriak dizkiete patioan.

Telebista beste entretenigarrik ez da. Asperdura nagusi. Lanen bat aurkitu duen asko oraindik bertara dagoz lotara. Egutero ordu jakinean banatzen zaizkie Japonia osotik iristitako paketeak.

Orain arte 573 pertsona hil dira Fukushimako hondamendi nuklearraren eraginez.

Mendebaldeko prentsak aipatu ez duen arren, *Yomiuri Shimbun* egunkariak plazaratu du Fukushima inguruko 13 udalerrik emandako datua. Gehienak zahar eta gaixo kronikoak ziren, lekualdatzeak akabatu dituenak. Argazkia Janick Magnek *Le Monde* egunkariko bere blogean “*Fukushima: l'enfer d'un accident nucléaire*” artikulua erekin batera eskaini du: Tokioko Kazo auzuneko ikastetxean aterpetutako gizon bat, Futaba herrikoa, 80 urte; urrunean emaztea ageri da. Urtebete daramaten arren probisionaltasunean, puskak txukun ordenatuta dauzkate, duintasun handiz. Sekula ezingo dira itzuli sorlekura, ez bada ordu laburreko bidaia baimenduetan. Etxegabetuotako asko hasiak dira erradiazioen ondorioak nozitzen osasunean, oraingoz gehienek sudurreko odol isuriak.

TEPCOk kalte-ordain gisa familiako 10.000 euro eman dizkie, gobernuak beste 3.000. Gauza pittina Japonian bizitzea kosta denerako. Askoz kopuru handiagoak agindu ditu Gobernuak, esan gabe noizko izango diren. Diru-laguntzak eskatzeko formularioak luze eta konplikatuak dira. Bestalde, nondik atera kalteak demostratzeko eskatzen diren frogak, ia dena galdu denean eta etxean sartzerik ez? Baserritar batek nekez amestu dezake noizbait beste nonbait etxaldea eskuratzea.

“Erosi egin gaituzte”

Karrikan edonork neguan dauzkan osasun arazoez gain (gripe, gastroenteritis...) Kazoko aterpean askori sudurretik odola dario. Futabako alkateari ere bai. Honek aitortu ez arren Magnek jakin du burukoak ez beste bilo guztiak galdu dituela. Erradiazioen sintomak dira. Potasio iodurorik ez zieten eskaini. Ihesi joandako haur askok dagoeneko tiroideak puztuta dauzkate, laster azalduko dira kantzerrak.

Alkatea kexu da ez dietelako egiten mediku-ikerketak osorik. Hurbildu diren kazetariak esana die, baina ez dute inon publikatzen gero. “Dena antolatuta dago japoniarrak ezjakinean edukitzeko”.

Ezer gabe geratu dira aterpetuak, ezin izan dute soinean zutena beste-



“Lobby nuklearraren aurrean amore ematen ari garela ulertuko luke askok”.

TEPCOk eta oro har energia nuklearretik bizi diren konpainiek edozertarako ahalmena dute. Japonian nuklearrek deklaratu dute haiek barreiatutako kutsadura berena ez dela, gainera erori zaienena baizik. Magne frantsesak komentatu dio Frantziako multinazional nuklear nagusi den AREVak pagatu zuela uztailaren 14ko festa Fukushima inguruko Koriyaman- “Publizitatea –dio Idogawak–, batzuei nuklearrek hainbeste diru damaienez dena ondo doala irudikatu nahi dute, istripu nuklear bat kudeatu daitekeela. Baina gezurra da”.

Alkatearen azken mezua *Le Monde*ko blogariarentzako: “Mintza zaitetze gutaz, esan zer ari zaigun gertatzen. Esan zein eskandalagarria den herriak eta jendeak sakrifika-tzea nuklearraren izenean. Esan munduari ingurumena zaindu behar dela. Kutsadura erradioaktiboa naturan barreiatzea, Japoniako gobernuak egiten ari dena, hori geldiarazi beharra dago. Bestela planeta osoa kutsatuko dugu!”.

Otsailaren 18an, Manami izeneko ikasle baten familiarekin joan da Janick Magne Futaba ikustera, baimen bereziz. Herri fantasma aurkitu du. Manamiren izebak esango dio: “Ez nuen sekula pentsatuko hain pobre izatera iristerik. Ezer gabe geratu gara”. Senarra TEPCOn ari zaio. Irabazten dutenarekin oraindik pagatzen ari dira sekula bizileku izango ez duten etxe kutsatuak. ■



rik ekarri. Iragana ostu diete, bizi-modua. Denek ez dute gaingitzen. Badira depresioak, batzuk alkoholari eman diote, beste batzuek *pachinko* txanpon-makinei, asko egoskor-tu egin dira, beti eskean kexu. “Gizakiak aberearen joerak hartzen ditu muturreko egoeretan. Hau gerra bat bezalakoa da. Hau gerra da! Denek ez dute soportatzen”.

Alkateak betidanik zekien zentral nuklearrak arriskutsuak direla. Gaztetan aritua zen iturgin bati laguntzen Fukushimaoan. Futabako 1.000 biztanle enplegatzen zituen TEPCOk, batzuek egunean ordu betez baizik ez aritzeko lanean, zerbaiten arriskua egongo zen.

Zentral nuklearrak behar zituen lursailak erosteko urrea pagatzen

zuen TEPCOk. Alkatea damu da gaur: “Dirutan ito gaituzte. Futabara joan behar duzun, ikusi hango herriko etxea zein handia den 7.000 herritarrentzako. Ametsetan bizi izan gara. Bagenekien arriskutsua zela, baina erosi egin gaituzte. Gure etorkizuna saldu dugu...”.

Hondakin erradiaktiboekin dago orain kezkatuta Idogawa. Tokioko gobernuak Japoniako 47 probintziei eskatu die onartzeko lur eta bestelako gai erradiatiodunak, eta kutsadura erradiaktiboa herrialde osoan barreiatzeari errore handia deritzo alkateak. Baina beste irtenbidea ere gogorra da: eremu debekatua erabiltzea, tartean Futaba bera, alde guztietako hondakin kutsatuak piltzeko. Hori onartzea latza litzateke:





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Joxe Iriarte, *Bikila*

Kritika eta autokritika

Ezker eraldatzailea –are iraultzailea bada– oinarri-oinarritik da sistemarekiko kritikoa. Eta zeregin horretan nahiko sendo ikusten du bere burua. Alabaina, deserosoa egiten zaio –zaigu–, bere –gure– buruarekiko edo taldearekiko jarduerarekin –auto–kritikoa izatea, batez ere jarduera hori berria denean.

Adibidez, *Berriako* zutabegile bati honako haxe harrigarria egin zaio: “lehen [ezker abertzaleak] politika egiteko modu bat oldarkorregia-edo zelako kritikatzeko zutenek, orain politika bigunegiak kritikatzeko”. Nire ustez, esaldi horrek ez luke inor harritu behar. Izan ere, egoera, berria izateaz gain, hain da konplexua eta zaila (batez ere krisi sistemikoari nola aurre egin eztabaidatzerakoan), ezen harrigarria hausnarketa eta irakurketa kontraesankorrak ez izatea litzatekeen. Kontua da zer eta zer-nolako helbururekin kritikatzeko den.

Esate baterako, nik txalotu egin dut –eta aldeko botoa eman ere bai– ezker abertzaleak hartu duen bide berria –eta horrek dakarren iraganeko estrategiari buruzko nolabaiteko autokritika–, nire uste apalean aurrekoa baino askoz zuzenagoa delako. Urteak eman ditut esplikatzen, ETAre existentzia –alferrikako sufrimendua sortzeaz gain– gainditu ezinezko oztopoa zela indarrak metatzeko eta ezker abertzaleak –eta honen aukera alternatiboek– “estrategia konpartituak” lantzeko. Baina antzeko iritzia izan dut instituzioetan lan egitea lehenetsi eta sistema kudeatzera lotu eta mugatu den ezkerarekiko: EA, EB, ERC, BNG (PSOE jadanik niretzako ez da ezker). Izan ere, bi estrategia horiek, bakoitzak bere berezitasunekin eta arazoekin, funtsean, herria eta ekimen herrikoia ikuspegi ordezkatzailerako konpartitzen dute, eta bigarrenak gainera, sisteman integratzera garamatza.

Egun borroka armatuaren auzia iraganaren gauza da. Instituzioarekiko mende-



DANI BLANCO

kotasun arazoak berriz –eta boterea konpartitu gabe eraginkorra izatea ezinezkoa dela pentsatzeak dakarren morrontza– gaurkotasan osoa dauka. Iraganarekiko autokritika ondo dago, baina, garrantzi handiagoa du gaur egun praktikatzeko dena aztertzeak, eta kritikatu behar bada hala egiteak. Batez ere, oposizio izatetik instituzio esanguratsuak (Gipuzkoako Aldundia eta hiriburua) gobernatzera iritsi denean.

Ezin ahaztu benetako nagusiak edo botere faktikoak kapitalaren jabeak direla eta izugarritzko presioa egiten dietela instituzioei. Eta beharrezkoa izanez gero, Grezian eta Italian bezala, beren esanetara egongo diren gobernuak ezartzen saiatzen dira. Izan ere, Europako estatuak, naziotasunaren aldetik desberdinak izan arren, klase izaeraren aldetik denak dira burgesak, “ezker-rra”k gobernatzen dituenak barne.

Horregatik, ezkerak –nazionalki “independenteak” diren estatuetan ere– guda zelaiztat eta etsaiaren lurraldetzat hartu behar du instituzio burgesen eremua, nahiz eta hor lan egitera behartu izan, eta batzuetan baita gobernatu ere. Bestela, lehenago edo geroago irentsiak izango dira.

Ezkerak inoiz ezin du goxo egon instituzioetan, aitzitik, dagoena ondo eta modu ondrotuan kudeatzen saiatu behar du –batez ere krisi garaietan–. Gobernuan edo oposizioan sistemaren aurka aritu behar du, eta kanpoan, esplotatu eta zapalduen eta ingurumenaren defendatzaileen mugimendu sozialak eta borrokak sustatu (ikuspin-tu antikapitalista batetik) eta lan horri lehentasuna eman.

Ez dago “instituzioetan aritzeak sisteman integratzera kondenatzen gaitu” dioen maldizio biblikorik, baldin eta zertarako gauden argi eta garbi badugu. Hortik dator eztabaidaren beharra.


Gaizki esanak barkatu, ondo esanak onartu! ■



Iraganarekiko autokritika ondo dago,
baina, garrantzi handiagoa du gaur
egun praktikatzeko dena aztertzeak
eta kritikatu behar bada hala
egiteak. Batez ere, oposizio izatetik
instituzioesanguratsuak
(Gipuzkoako
Aldundia eta hiriburua)
gobernatzera iritsi denean

ASTE HONETAKO

zozketa



Gametxo hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Gametxo auzoa
Ibarrangelu BIZKAIA

www.hotelgametxo.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

3



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza,1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2313. Argia)

ANDRA MARI JATETXEA

- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)

EKAINBERRI

- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)
- Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
- Adur Euskaltegia (Gasteiz)

JORGE OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA

- Gotzon Egia Goienetxea (Donostia)
- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
- Xabino San Sebastian Murua (Ororbia)

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Pupu eta Lore DVDa

- Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)
- Martzelino Elortza Izeta (Segura)
- Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)
- Portugaleteko Aek Euskaltegia (Portugalete)
- Txaro Arrue Segurrola (Errezil)

GARTXOT liburua

- Josu Jimenez Muro (Donostia)
- Miren Begoña Goikoetxea Azkue (Getaria)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



SORTUKO DIRA BESTEAK

XABIER LETE
GOGOAN

**EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS**

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Martxoak 31
19:00etan



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net

